

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIV. edizioa

2 0 1 2



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXIV. edizioa

2 0 1 2

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-798-2012

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Urtero-urtero, maiatz inguruan, gaztetxoez betetzen da Arabiar Aretoa Mikoleta Ipuin lehiaketaren sari banaketa egunean eta ekitaldia musikaz, kolorez, urduritasunez, opariz eta momentua betirako gorde nahi duten argazki kamerez janzten da.

Aurten ia 900 ipuin aurkeztu dira lehiaketara eta liburu honetan Epaimahairen ustez onenak direnak dituzu irakurgarri. Letra eta irudi bidez neska-mutilok zeuok hautematen duzuen errealitatea islatu edo nahiko zenuketen mundua irudikatzen duzue freskotasun eta naturaltasun osoz; beti betiko gaiak eta gaurkotasun osokoak uztarturik, beti ere gaztetxoon ikuskeratik.

Iñaki Azkuna
Bilboko Alkatea

Sariak

*Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamaikako martxoaren bateko arratsaldeko bostetan batuta,
hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXIV. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,
aurkeztutako 892 ipuinak aztertu ondoren:*

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. URRETXINDORRAREN AHOTSA,
Nerea Erdozain Toribio,
Birjinetxe HLHI.
2. SUA PIZTU,
Ariadna Menéndez Griñán,
Birjinetxe HLHI.
3. MARIA ETA GAUA,
Sofia Celaya Brettes,
La Salle Bilbao HLBHIP.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. ABDUL,
Josu Mínguez Ramos,
Zurbaranbarri HLHI.
2. MO,
Ainhoa Zubiaur Arsuaga,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. ZUHAITZ MAGIKOA,
Maider González Ortega,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. HARRAPATUTA,
Maitane Rámila Bárcena,
Miguel de Unamuno BHI.
2. BI KOLOREEN ARTEKO GRISA,
Irati Abad López,
Miguel de Unamuno BHI.
3. MAITASUNAREN ONDORIOA,
Lara Gil Benito,
Gabriel Aresti BHI.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. MAITASUN AITORPENIK EDERRENA,
Maitane Sobrino Alonso,
Artxandape Ikastola HLBHIP.
2. NI HEMEN ETA AITA URRUN,
Iker Abrisketa Gutierrez,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
3. ZERGATIK JAIO NINTZEN EMAKUME?,
Iratxe Moreno González,
Berrio-Otxoa HLBHIP.

ARGITARAGARRIAK:

A KATEGORIA:

- EURITAKO BATEN ABENTURA, Héctor Cabrera Bilbao, Zamakola Juan Delmas HLHI.
- UR-JAUZIKO LAMIA, Gorka Yabar Diez, Zamakola Juan Delmas HLHI.

B KATEGORIA:

- ARROSA HORIA, Naroa Muñoz Hernando, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- LEHOI BARAZKIJALEA, Arrate Manero Setién, Maestro García Rivero HLHI.
- TXURROKINDEGIA, Nerea Villalvilla Rodrigo, Luis Briñas-Santutxu BHI.

C KATEGORIA:

- LORENZO NIRE LOROA, Naiara Ortega Aguayo, Miguel de Unamuno BHI.
- DÉJÀ VU, Jone Askaiturrieta Ostolaza, Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
- LUCIAREN EGUNEROKOA, Zuriñe González Cimadevilla, San Adrian BHI.

D KATEGORIA:

- AURREIRITZIRIK EZ!, Amaia Monsalvo Alonso, Ntra. Sra. de Begoña LBHIP.
- HERIOTZAREN IZENEAN, J. Andrés Hoyos Guevara, Gabriel Aresti BHI.
- PARKEKO ESTATUA, Aitor Merino Santa Cruz, Berrio-Otxoa HLBHIP.
- U.P.T-AREN SORRERA, Nerea Godoy Fuentes, Artxandape Ikastola HLBHIP.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon, bi mila eta hamaikako martxoaren
bateko arratsaldeko seietan.

Sabin Anuzita, epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Igone Etxebarria, epaimahaikidea

Jose Maria Larrea, epaimahaikidea

Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea

Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



Urretxindorraren ahotsa



*Nerea Erdozain Toribio,
Birjinetxe HLHI.*

Behin batean, Xishuangbanna izeneko baso batean familia bat bizi zen. Familia hori oso pobrea zen eta, horregatik, basoan bizi zen. Familia horrek alaba bat zuen eta haren izena Tenda zen.

Tenda oso ona eta maitagarria zen. Lan asko egiten zuen eta bera bakarrik basora joaten zen. Tendak gogoko zuen basora joatea batez ere musika entzutera edo abentura bila joatea.

Tendak altxor bat zuen, amonak oparitutako lepokoa, eta haren ustez zorte ona ematen zuen. Ilea beltza, aurpegia zuri-zuria eta irribarrea polita baino politagoa zuen. Tendak gogoko zuen eskolara joatea baina hamar urterekin utzi behar izan zion eskolara joateari. Tendaren amak ortuan lan egiten zuen eta bere aita ehiztaria zen baina ez zuten diru gehiegi ateratzen. Orduan, Tenda Konming hiri-burura joan zen lan egitera.

Haren lana etxe bat garbitzea eta gauzez arduratzea zen. Baina ez zen etxe normala, aberats batena baizik. Aberatsak Kitxoen zuen izena eta oso gaiztoa, burugabea eta kexatia zen. Tenda etxe horretan bizi zen eta berarentzat gauzarik harrigarriena tramankulu hiltun bat zen: telebista.

Baina ez pentsa egun osoa telebista ikusten igarotzen zuela! Bera lanean zegoen eta telebista gauero ikusten zuen, baina pitin bat eta ezkutuan. Bestela iku-



siko zuen! Telebistako saiorik gus-
tukoena abeslariena zen. Saio
horretan abeslari ospetsuek kan-
tatzen zuten.

Bera ere abesten hasi zen
egunero-egunero, lan egiten zuen
bitartean. Egunero egiten zuenez,
azkenean oso ondo kantatzen
zuen eta telebistan ikusten zituen
abesti berriak ikasten zituen.
Gauean, kantari profesionala zela
eta bere etxera itzultzen zela
amesten zuen.

Lau urte pasa eta gero, gar-
bitzeaz nazkaturik, kantaria izan nahi zuen. Orduan, gau batez bere arropa hartu,
jabeari diru pixka bat ostu, eta autobus batean joan zen Pekinera, Txinako hiribu-
rura.

Pekinera heltzean zur eta lur geratu zen hainbeste jende ikustean eta are eta
gehiago etxe erraldoi haiengatik. Tendaren asmoa hiri guztia ezagutzea zen eta,
bitartean, bertakoei galdetzea lotarako leku bategatik.

Bazkaltzeko ordua iristean taberna batera joan zen. Bazkaldu ondoren zerbi-
tzariari galdetu zion:

—Badakizu non dagoen aterpe edo lo egiteko leku bat?

—Noski. Nahi baduzu, hemen lo egin ahal duzu baina trukean zerbait egin
beharko duzu.



—Ederto! Orduan, abestu egingo dut tabernako jendea alaitzeko.

—Konforme.

Tenda pozik zegoen abesteko aukera eta aterpe bat aurkitu zuelako. Gauean, kanta eta kanta aritzen zen eta, musika oso polita zenez, argazkiak atera eta kanta bat bukatzean denek txalotzen zuten.

Tenda oso famatua egin zen eta bere ametsa ere bete zen baina arazo larriak ekarri zizkion. Hain egin zen famatua ze telebistan agertu zen. Orduan, Kitxoen enteratu zen Tenda Peking-en zegoela eta bere dirua ostu zuela.

Kitxoen poliziarengana joan zen, eta guzti-guztia kontatu zion. Polizia berehala joan zen Peking-era. Peking-era heldutakoan, oso erraz aurkitu zuen Tenda. Laugarren tabernan zegoen. Oso erraza izan zen musika eta jende mordoa zegoe-lako. Harrapatu zuenean Tenda espetxera eraman zuen.

Gauean, ilbetea zegoela, Tenda esnatu eta gurasoez gogoratzean negarrez hasi zen. Malko bat lepokoan sartu eta urretxindor bihurtu zen.

Biharamunean, poliziek ez zuten Tenda aurkitu eta ospa egin zuela pentsatu zuten.

Handik aurrera, kondairak dioenez, urretxindorrek kanta politak abesten dituzte.



Sua piztu


Ariadna Menéndez Griñán
Birjinetxe HLHI.

Bazen behin Euskera izeneko gizon zahar bat, baserri txiki batean bizi zena. Oso jakintsua zen eta herriko ume guztiek maite zuten Euskera.

Egun batean lurrikara bat egon zen herrian. Bertako pertsona guztiek buruan kolpea hartu zuten eta, ondorioz, oroimena galdu zuten. Inork ez zuen gogoratzen Euskera jauna nor zen.

Orduan, Euskerak bizileku berri batera joatea erabaki zuen. Lagunik gabe zegoen, inor ez zen gogoratzen beraz, zein jatorra zen, ezta zein maitatua zen ere. Bere gauzak hartu eta, atzera begiratu gabe, bidaiari ekin zion Euskera jaunak negar batean. Hiru egunetan ibili zen oinez leku berri batera iritsi arte.

Bertan lorezain jator bat ezagutu zuen, Eguzkiloze izenekoa. Eguzkiloze oso alaia zen, ile gorria eta begi ber-



deak zituen. Euskerak hainbat gauza erakutsi zizkion Eguzkiloreri, Euskal Herriko tradizioak, abestiak, istorioak eta errezetak. Eguzkilorek, aldiz, kirol mota desberdina erakusteaz gain, igeri egiten ere erakutsi zion.

Euskerak mendiko botak erosi zituen eta biak mendira joaten ziren egunero ibilaldi politak egitera. Ezagutu ahala lagun minak egin ziren biak. Urte batzuk elkarrekin igaro eta gero, Euskera gero eta alaiago eta indartsuago sentitzen zen, Eguzkilore bezala. Hala ere, zerbait falta zitzaiola nabaritzen zuen. Herrimina zuen, bere betiko lagunaren falta, herriko umeen irribarrea, bere baserriko baratzea...

Eguzkilore eta bertako biztanleak agurtu eta gero, Euskerak bere herria itzultzea erabaki zuen. Beste bi egunetako ibilaldia egin eta gero azkenean herrira iritsi zen. Denak herriko plazan zeuden, baina Euskera bere baserrira joan zen inor bertaz gogoratuko ez zen tristurarekin.

Halako batean, herriko plazatik musika ederra hasi eta pertsona guztiak Euskera nola urruntzen zen begira geratu ziren. Pixkanaka oroimena etortzen hasi zitzaien eta Pellok, bertako umeak, begiak zabal-zabalik zituela, honela esan zuen:

—Gizon hori ezaguna egiten zait... Euskera da!! Bera da!!!

Orduan herriko biztanle guztiak poz-pozik jarri ziren eta dena gogoratu zuten. Euskeraren baserrira joan ziren. Han topatu zuten gizona, suaren ondoan eskusoinua jotzen. Denek besarkatu zuten, eta argi zeukaten hortik aurrera ez zirela inoiz ahaztuko Euskeraz.

Gaur egun ume guztiak bere baserrira joaten dira ipuinak eta abestiak entzuterako. Jarrai dezala horrela urte askotan.



Maria eta gaua

Sofia Celaya Brettes
La Salle Bilbao HLBHIP.



Bazen behin neska bat Maria deitutakoa. Ez zitzaion gaua ezer gustatzen.

Egun batean izar iheskor bat ikusi zuen eta desio bat eskatu zion: gaua desagertzea.

Hortik aurrera, beti eguna zen eta guztiek lo egin nahi zuten baina ezin zuten.

Egunak pasa eta ilargia oso txiki zegoen. Hurrengo egunean txikiagoa eta hurrengoan eta hurrengoan... Gainera, izarrek ez zeukaten ia-ia argirik. Orduan, ilargiak konponbide bat bilatu behar zuen. Bestela, desagertu egingo zen!

Egun batean, ilargiak Mariari esan zion beste desio bat eskatzeko izar bati. Baina ezin zuen ezer eskatu ze ez zegoen izarrik.

Mariak ez zekien zer egin, ez zituen ideiak!

Orduan Mariak eguzkiari esan zion laguntzeko baina eguzkiak ez zuen lagundu nahi bera oso handia egiten ari zelako eta argi gehiago ematen zuelako.

Maria oso larrituta eta, gainera, nekatuta zegoen. Ez zuen lo egiten bere ohean eta ez zuen ideiarik... Hilabete bat pasa zen eta Maria etsita zegoen baina

bat-batean ideia bat izan zuen. Eguzkiak ideia horrekin zerikusia zuen eta ez zekien nola konbentzitu, baina ahalegindu egin behar zen.

Ia-ia konbentzitu zuen eguzkia baina ezer ez, ezin zuen! Eguzkiari kontatu zion honako plan hau: eguzkia ezkutatu behar zen horrela guztia ilundu egingo zen eta gaua agertuko zen berriz. Baina eguzkiari ez zitzaion gustatzen.

Bat-batean Mariak ideia bat izan zuen eguzkia konbentzitzeko eta hauxe esan zion:

—Eguzki! Lagundu, mesedez! Bestela, zu oso handia izango zara eta lurra lehertu egingo da!

Eta eguzkiak ulertu eta baietz esan zuen.

Plana aurrera eraman zuten eta Maria mito bihurtu zen.



Euritako baten abentura

*Héctor Cabrera Bilbao
Zamakola Juan Delmas HLHI.*

Bazen behin, euritako bat handia eta kolore guztietakoa zena. Asko gustatzen zitzaion hiri desberdinetatik bidaiatzea hizkuntza ugari ikasteko, beste jabeekin hitz egin ahal izateko eta baita senitartekoak (sonbrillak, euritako tolesgarriak...) ezagutzeko ere.

Bestalde, ez zitzaion batere gustatzen txingorra, mina ematen ziolako gorputzean eta are gutxiago tximistak!

Egun batean Paristik zebilen eta bat batean aire bolada batek eraman zuen guardasola hegan. Ez zekien non zegoen, zorabiatuta zegoelako, baina jada bere ustez leku horretan egona zen. Horregatik pentsatu zuen ibilaldi bat egin behar zuela. Ordu bat pasatu ondoren, txakur batekin topatu zen eta koska egin zion eta guztiz apurtuta utzi zuen. Gero, mutil batek zakarrontzira bota zuen. Oso usain txarra zegoen han barruan. Denbora luze baten ondoren mugimendua nabaritu zuen eta kamioi batera bota zuten.

Kamioia zabortegi batera abiatu zen. Horregatik denbora gutxian zaborraren artean egongo zen. Une horretan bere bizitza bukatutzat ematen zuen. Bertan behera botata ikusten zuen bere burua. Baina ez zuen arrazoirik.

Eta gizon batek esan zuen orduan:

—Hau bai euritako polita!!

Euritakoa hartu eta berehala konpondu zuen. Ehun berri bat josi zion eta eskulekua margotu zion urdin kolorearekin.

Gizonak itxaron egin zuen semea eskolatik atera arte eta etorri zenean esan zion:

—Tori euritako hau.

—Eskerrik asko, piloa gustatzen zait!

—Ez horregatik, seme, zuretzako oparia da.

—Oso polita da.

Eta orain semea eskolara joaten denean, euria egiten badu, eramaten du euritakoa. Eta euritakoa oso pozik dago bizitza berri honekin.

Ur-jauziko lamia

Gorka Yabar Diez
Zamakola Juan Delmas HLHI.

Bazen behin Egoitz izeneko ume bat.

Egun batean Pagasarri mendian zegoen eta, bat batean, Egoitzek kanta liluragarri bat entzun zuen eta, kanta jarraituz, basoa zeharkatu zuen ur jauzi batera heldu arte, baina ur-jauzira heltzean ez zuen gehiago kanta entzun.

Joaten ari zenean ur-jauzira begiratu zuen berriro eta ur-jauziaren atzean, urrezko distira bat ikusi zuen eta korrika batean joan zen distira hori zer zen ikus-tera.

Egoitz harritu zen distira hura ez zelako txanpon bat, urrezko orratz bat baizik. Egoitzek orratza hartzean, emakume esku bat nabaritu zuen sorbaldaren gainean.

Egoitzek oihukatu zuen:

—Ahhhh!!! Eta korrika egiten hasi zen baina neskak (Lamiak) oihu egin zuen:

—Zatoz, ez dizut ezer egingo.

Egoitzek utzi zion korrika egiteari eta hasi zen lamiarengana hurbiltzen poliki-poliki. Eta esan zion lamiari:

—Nire laguna izan nahi duzu?

—Bai, ederto! —esan zuen lamiak.

Aurrerantzean Egoitz egunero ur-jauzira joaten zen lamiarekin arrain pixka bat jatera.

Egun batean lamia negarrez zegoen eta Egoitzek galdetu zion:

—Zer gertatzen zaizu?

—Nire ama gaixorik dago eta sendagaia egiteko behar dudan lorea ez dut aurkitzen.

—Zein da lore hori?

—Orkidea du izena.

—Nik ikusi ditut nire etxe atzean dagoen mendixkan.

—Bikain! Joan ahal zara hartzera, mesedez?

—Noski, joango naiz!

—Joan aurretik tori nire ispilua, beharko duzu eta —esan zion lamiak.

Egoitzek hartu zuen ispilua eta mendixkarantz abiatu zen. Orkideak aurkitu zituen, baina orduan sorgin maltzur bat agertu zen eta sorginak esan zion:

—Ezin dituzu orkideak hartu, nireak dira eta.

—Mesedez, utzi hartzen, behar ditut eta.

—Ezetx, ez dizkizudala emango. Lan asko egin dut orkideak horrela edukitzeko. —Eta bat-batean, sorgin gaiztoak mendeku bat bota zion Egoitzi.

Egoitzek, dardaraz, lamiaren ispilua atera zuen eta sorginari mendekua itzuli zion.

—Txasssssssssss! —Eta bat-batean izugarrizko distira agertu zen.

Egoitz itsutu egin zen distirarekin. Ikusi ahal izan zuenean, sorgina ez zegoen, baina lehen ez zegoen zuhaitz itsusi bat ikusi zuen eta Egoitzek pentsatu zuen:

—Sorgina izango ote da?

Egoitzek orkideak hartu eta lamiarengana joan zen korrika. Heltzean, lamiari eman zizkion. Eta hurrengo egunean, lamiak esan zion:

—Nire ama ondo jarri da. Eskerrik asko, mesede bat zor dizut!

Hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Buiako plazan.

B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)





*Josu Minguez Ramos
Zurbaranbarri HLHI.*

Afrikako mutila, udan, nire etxera etorriko zela esan zidatenean ez zitzaidan oso ondo iruditu.

Uda hartan, nire gurasoek Saharako mutil bat oporrak gurekin pasatzera ekartzea erabaki zuten; nire adinekoa izango zen eta horrela, berak hemengo ohiturak ikasteaz gain, nik hango jendeari buruz zerbait ikasiko nukeen.

Bere bila aireportura joan ginen. Ikusi bezain laster, banekien nor zen. Bere begiak etengabe bilatzen ari ziren eta ez zekien ondo norantz abiatu. Ikaratuta zirudien.

Elkar agurtu genuen. Oso atsegina zen eta, gainera, gaztelaniaz hitz egiten zekien bere eskolan ikasi baitzuen. Etxera heldu ginenean asko gustatu zitzaion; hala ere, esan zigun bere etxeaz gogoratzen zela.


Hurrengo egunetan ni gidari bihurtu nintzen. Hiri erdira eraman nuen. Ikaratuta geratu zen inoiz ez baitzuen hainbeste eraikin ikusi. Ez zekien zergatik jendea mugitzen zen agudo. Dirudienez, bere herrixkan jendea oso lasai bizi da. Metrora hurbildu ginenean, harrituta geratu zen, jendea lur barrutik ateratzen zen eta berari inurritegi erraldoi bat iruditu zitzaion. Han geratu zen, begiratzen. Igotzen eta jaisten ziren eta ez ziren eskaileretan mugitzen.

—Biziko dira han? —galdetu zidan.

Barrura joan ginen. Abdulek ez zuen ulertzen zergatik nahiago zuen jendeak lurpean bidaia egin. Ez zuen nahi metroan igo. Kalera irten ginen, baina ez eskailera mekanikoetatik besteetatik baizik.

Ibaia erakutsi nion eta Guggenheim-era abiatu ginen. Makina bat ontzi, bata bestearen gainean, ematen zuela esan zidan.

—Untzi hilaren monumentua al da?



Gaua heldu zen eta Abdulek ez zuen ulertzen zergatik, nahiz eta gaua iluna izan, zerua hain argi zegoen. Ez ziren izarrak ikusten baina argiz beteta zegoen.

Gauero luzaro hitz egiten genuen. Bere herrian jende gutxi bizi zen; hala ere, bere ustez hemen jende pilo bat, denak elkarrekin, bizi izan arren, jendeak bakarrik ematen zuen. Bere herrixkan ia ez zegoen etxerik; hemen, aldiz, makina bat etxe dago baina noizean behin kalean jendea bere bi plastikozko poltsaren barruko etxearekin ere ikusi genuen. Ez zuen banketxea zer zen ezagutzen.

—Zertarako balio dute? —galdetu zidan egun batean.

—Hiri honetan dirutza mugitzen da —erantzun nion.

—Orduan elizen ateetan eskua luzatuta eskatzen dagoen jendea, zergatik ez doa banketxeetara?

Ez nuen jakin zer erantzun.

Egunak pasa ahala, Abdulekin hobeto nengoen. Leku askotara joan ginen. Hondartzan ez zuen nahi uretatik atera, ez zuen inoiz igerilekurik ikusi bere herrian. Han ia ur guztia edatekoa zen, oso gutxi zegoen eta. Mendian liluratuta geratu zen, bere ustetan munduko zuhaitz guztiak han zeuden.

Hasieran hemengo janaria ez zitzaion gehiegi gustatzen. Azkenean ohitu egin zen, baina zaborrera botatzen genituen hondakinak ikustean haserretu egiten zen.

Pixkanaka-pixkanaka hemen jaiotzeagatik zorte ona nuela pentsatu nuen, baina beste herrialdeetan ere diru gutxiagorekin zoriontsuak direla konturatu nintzen.

Agur esateko eguna iritsi zen. Pena handia eman zidan. Baina, beharbada, beste uda batean Abdulen herrira joango nintzela pentsatu nuen.





Ainhoa Zubiaur Arsuaga
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Kaiko! MO deitzen naiz, MO eulia. Josemari eta Marijosereren etxean bizi naiz. Normalean piña baten barruan egoten naiz; hotza daukadanean mikrouhinean eta beroa daukadanean hozkailuan. Nire idoloa MOSKI-GAGA da eta kolorerik gogokoena beltza.

Kasua da, orain dela aste bat etxean nengoela lasai-lasai tele-piña ikusten Josemari kristal bat aldatzen zegoelako. Irten nintzen korrika komunera joan nahi nuelako eta kristal berriaren kontra estanpatu nintzen. Marijosek ikusi ninduen zorabiatuta eta leihotik bota ninduen.



Jausten ari nintzenean airea sentitu nuen nire aurpegian eta jakin nuen ez banintzen espabilatzen nire amaiera izango zela...

Zorionez, handik pasatzen ari zen MOSKI-GAGArene autobusaren gainean jausi nintzen. Gidariak kolpea entzun eta autobusa gelditu egin zuen. Ea zer gertatzen zen ikustera joan zenean nik aprobetxatu nuen autobus barrura sartzeko.

MOSKI-GAGAk ikusi ninduenan pentsatu zuen ni bere masajista berria nintzela. Aurrekoak atzamar bat apurtu zionez kalera bota zuen; beraz, nire lehenengo betekizuna atzamar hori konpontzea zen. Eskerrak igeltsua jarrita zeukala eta ez zela konturatu nik ez nekiela zer egin! Berbetan hasi ginen eta momentu horretatik aurrera oso lagun onak egin ginen.



—Zer ba?

—Ba, nire amak faltan bota-ko nau eta haserretu egingo da.

—Ez kezkatu. Nire agenteak dena konponduko du.

Ordu bat beranduago bere hegazkin pribatuan geunden eta hurrengo egunean New Yorken. Kontzertua hasi eta ordu bat lehenago antzokia intsektuz beteta zegoen. Denak MOSKI-GAGArekin zain zeuden urduri. MOK kontzertuko prestakizun guztiak egiten zituen bitartean, MOSKI-GAGA oraindik autobusean zegoen. Orduan txingorra botatzen hasi zen, inoiz ikusi ez diren izotz bola erraldoiak jausten.

Ez zegoen modurik MOSKI-GAGA autobusetik irteteko. MORi deitu zion bertan behera utzi behar zela kontzertua esateko. MOK ideia bat izan zuen: bera, bere fanen artean lehenengoa, hasiko zen abesten atertu arte.

Horrela egin zuten eta ateri zuenean MOSKI-GAGA bat-batean agertu eta MOREkin batera abesten hasi zen.

MOSKI-GAGA oso euli ona iruditu zitzaidan eta kontatuko niona ulertuko zuela pentsatu nuen. Horregatik ausartu nintzen hauxe esaten:

—Ez haserretu nirekin, baina uste dut jakin behar duzula ni ez naizela fisioterapeuta.

—Ikusten zen! Lasai, beste fan batzuk izan ditut gezurretan ibili direnak baina, zu izan zara egia esan didan bakarra.

—Orduan, ez zaude haserre nirekin? —nik.

—Ez. Baina nire txoferra konturatzen bada...

—Bale! Eta non da hurrengo kontzertua?

—New Yorken.

—Oh-oh! Arazo baten sartu naiz...



ORAINDIK MUNDUKO INTSEKTUEN

MEMORIAN GRABATUTA DAGO KONTZERTU

HURA!



Zuhaitz magiko

Maider González Ortega
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Bazen behin 6 urteko mutil bat, Pablo deitutakoa, landare bat landatu zuena baso batean. Landatu zuen momentuan distira bat egon zen eta, horrela, zuhaitz magiko bihurtuko zen.

Egunero joaten zen landareari ura botatzera eta han jesartzen zen ipuin bat irakurtzera. Beti imajinatzen zituen ipuinak eta gehien gustatzen zitzaiona *Robin Hood* zen.

Landarea handitzen joan zen, zuhaitz bat bihurtu zen arte. Pablori asko gustatzen zitzaion bere zuhaitz loredun polita eta bere izena grabatu zuen han.

Egun batean, zuhaitzean jesarrita zegoen *Alizia herrialde harrigarrian* ipuina irakurtzen. Bat batean, gizon ezezagun batzuk etorri eta esan zioten:

—Zu, mutil, kendu hortik! Zuhaitz hori moztu behar dugu eta!

—Nork esan dizue zuhaitz hau mozteko? —galdetu zuen Pablok.

—Pedro eta Maria jaun andreak.

—Nola? Nire aitak eta amak? Ezin duzue moztu nire zuhaitza!

—Bai! Eta orain kendu hortik!

Pablo etxera joan zen eta bere gurasoei errieta handia egin zien. Oso haserre eta triste zegoen bere zuhaitza moztuko zutelako baina gurasoek azaldu zioten moztu behar zutela zuhaitza berarentzat armairu bat egiteko.

Egun baten, gizon batzuk armairua ekarri zuten eta Pablo bere ipuinak gordetzen hasi zen. Beti zuhaitzaren ondoan irakurtzen zuenez, armairuaren ondoan hasi zen irakurtzen.

Pablok ez zekien nola baina, irakurtzen zuen ipuinaren arabera, pertsonaia desberdinak ateratzen ziren armairutik. *Robin Hood* irakurtzen zuenean, Robin Hood, Lady Marian eta Rikardo Erregea ateratzen ziren, eta *Errauskina* irakurtzen zuenean, Errauskina, amaordea eta maitagarria ateratzen ziren. Armairua magikoa zen!

Ez zion inori esan eta ipuinak irakurtzen jarraitu zuen. Oso pozik zegoen armairuagaz eta konturatu zen zuhaitz ondoan egotea eta armairua edukitzea berdina zela. Orain ez zegoen haserretuta gurasoekin. Horren orde, eskerrak ematen zizkien ikusten zituen bakoitzean.

Urteak pasatu ahala, Pablo handitzen joan zen eta oso triste zegoen unibertsitatera joan behar zelako eta ezin izango zuelako eraman armairua. Oso txarto egin zuen lo, baina esnatu zenean... ez zegoen armairurik! Zurezko zuhaitz txikitxo bat bihurtu zen!

Pablok zuhaitza hartu eta bere maletan sartu zuen, oso-oso pozik zegoen. Zuhaitza betirako egon zen beragaz.



Arrosa Horia

Naroa Muñoz Hernando
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

Bazen behin arrosa hori bat Puentedeyn bizi zena arrosaz betetako zelai baten. Arrosa guztiak gorriak ziran, bera izan ezik. Arrosa horia zen eta oso triste zegoen, berak nahi zuelako beste guztiak bezalakoa izan eta neska batek hartzea eta eroatea etxera. Baina inork ez zuen arrosa hori bat nahi.

Horregatik esnatzen eta irekitzen zen lehenengoa eta pentsatzen zuen:



—Irekitzen banaiz lehenengoa eta eguzkiak asko ematen badit, gorria ipiniko naiz, bestean moduko gorri-gorria, eta neska batek hartuko nau eta bere etxera eramango nau.

Denbora asko pasatu ondoren, neska bat joan zen arrosak hartzera, bere amaren urtebetetzea zelako eta amari asko gustatzen zitzaizkiolako arrosak. Orduan arrosen zelaira joan zen eta pila bat arrosa gorri hartu zituen, baina zelai horretan oraindik arrosa horia eta bere lagun batzuk geratzen ziren. Neskak, orduan, lagun bat aurkitu eta lagunarekin sokasaltora jolasten hasi zen eta arrosak hantxe bertan ahaztu zituen. Gaua pasatu zen eta, goiza heldu zenean, arrosa horia betiko moduan lehenengoa esnatu zen eta bere lagunak bizitza barik ikusi zituen eta asko poztu zen arraro izatearren eta inork ez hartzearren. Oraindik arrosa horia Puentedeyn aurkitu ahal duzu.

Eta hala bazan ala ez bazan, sartu dadila kalabazan eta irten dadila Puente-dey-ko plazan.

Lehoi barazkijalea

Arrate Manero Setién
Maestro García Rivero HLHI.

Bazen behin, lehoi bat barazkijalea zena. Lehoia Roki deitzen zen. Roki bere ama eta bere anai txikiarekin bizi zen. Ama Roka deitzen zen eta bere anaia Roke.

Goiz eguzkitsu batean, Roki janari bila ari zela, bere gelako kide batzuk ikusi zituen eta haiekin joatea erabaki zuen. Baina hurbildu zenean bere gelakideak barrez hasi ziren:

—Ja, ja, ja hor dator lehoi barazkijalea. Ha, ja, ja!


—Zuek haragijaleak eta ni barazkijalea, zer axola du horrek! —esan zuen Rokik.

Gelakideek ez zioten kasurik egin eta korrika joan ziren barrez. Roki gaixoa bakarrik geratu zen eta bera ere korrika eta negarrez joan zen etxera.

Etxera iristean amak zergatik zegoen negarrez galdetu zion:

—Baina maitea, zergatik zaude negarrez?

—Nire gelakideak nitaz barre egin dute barazkijalea nahi zelako —erantzun zion Rokik amari.



Ama Roki lasaitzen saiatu zen baina Roki ez zen lasaitzen.

—Ama, jendeak pentsatzen du arraroa naizela —esan zuen Rokik triste.

—Maitea, zoaz ohera. Bihar hitz egingo dugu —esan zion amak oso lasai.


Roki ohera joan zen oso triste. Hurrengo goizean amak bere plana kontatu zion. Barazki batzuk hartuko zituzten eta nolabait haragi forma eman, gero denen etxera joango ziren barazki horiek ematera.

—Ama, eta hori zertarako? —galdetu zion Rokik harrituta.

—Jendeak ikusiko du barazkiak ez direla txarrak —esan zion amak Rokiri.

Plana martxan jarri zuten eta oso, oso, oso ondo atera zen.

Handik aurrera lehoi guztiek barazkiak jaten zituzten. Rokiren gelakideek bar-kamena eskatu zioten Rokiri eta denek batera jolastu zuten.



Txurrokindegia

Nerea Villalvilla Rodrigo
Luis Briñas-Santutxu BHI.



Istorio hau Martinena da, txurrogile bat herriz herri joaten zena bere txurro-dendarekin, txurroak saltzen. Jaiak zirenean joaten zen eta arratsaldeetan lan egiten zuen, aste bakoitzean herri batean.

Ez zitzaion asko gustatzen bizitza hori, beti lekuz aldatzen zegoelako eta ez zuelako lagunak egiteko denborarik, baina ohituta zegoen. Txikia zenean bere aita Pedrorekin joaten zen txurro dendarekin txurroak saltzen eta inoiz ez zituen lagunak izan, zeren eta ezagutzen hasten zenean joan behar izaten zen, berak txurro-denda zuelako.

Egun batean herri batera joan zen. Herri horretako jaiak luzeagoak ziren eta bi astez geratu zen. Bi aste horietan jende asko ezagutu zuen eta horien artean Maria ezagutu zuen, herriko ogi-saltzailea.

Maria ere aspertuta zegoen bere bizitzaz: beti herrian eta okindegian, ogia eta ogia saltzen. Mariak Martini esan zion berak zuen bizitza, herriz herri joaten, gus-




tatzen zitzaiola. Maria bere okindegian zegoen beti lan egiten eta inoiz ez zen joaten beste herri batzuetara. Maria inoiz ez zen hiri handi batean egon, bakarrik joaten zen bere herriaren ondoko herrira.

Martinek esan zion, nahiz eta hasieran oso itxura dibertigarria izan, laster nekatuko zela herriz herri ibiltzeaz. Martinek leku batean geratzeko gogoa zeukan baina ez zuen aurkitzen txurro-denda herri finko batean jartzeko momentua.

Martinek proposatu zion Mariari txurro-denda Mariak okindegia zuen lekuan jartzea. Baina berak ez zuen nahi herriko jendea ogirik gabe utzi. Orduan pentsatu zuten txurroak eta ogia saldu ahal zituen denda bat jartzea.

Idea ona izan ahal zen herriko jendeak bi gauzak erosi ahal izateko. Dendari zer izen jarri pentsatzen jarri ziren eta “txurrokindegia” deitzea bururatu zitzaien.

Herriko jendeari asko gustatu zitzaion ideia eta jende ilarak zituzten beti “txurrokindegian” ogia erosi eta txurro egin berriak etxera eramateko.



Hain ondo joan zitzaizkien gauzak, ezen denbora gutxian diru asko lortu zuten eta diru horrekin beste herrietan “txurrokindegia” gehiago jartzea pentsatu zuten.

Azkenean, hiru “txurrokindegia” edukitzea lortu zuten. Lehena, Mariaren herrian; bestea, alboko herrian eta azkenean hiri handi batean jarri zuten beste bat.

Mariak hiriko “txurrokindegian” lan egitea nahiago zuen. Horrela, oso pozik egon zen hirira joan ahal zelako.

Martini gehiago gustatzen zitzaion herria eta Mariaren herrian txurroak eta ogia saltzen geratu zen. Azkenean Martinek leku batean geratzea lortu zuen.

Beste txurrokindegian Pedrok, Martinen aita, lan egiten zuen.

Horrela denok zeuden pozik txurroak eta ogia saltzen.

C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



Harrapatuta

Maitane Rámila Bárcena
Miguel de Unamuno BHI.

Lurrean eserita, arrenkari. Hankak uzkurturik eta nire besoak hauek babesteko ahalegin batean. Burua nire belaun dardarati edo inerteen gainean neukan. Lasai mantentzen saiatu nintzen, behintzat segundo batzuetan zehar, baina, berriz, nire urduritasunak garaitu ninduen. Nire besoen ile bakoitza nola igo eta altxatzen zen nabaritzen nuen, ihes egiteko nahiaz, niri helduta. Nire bizkarra, babesgabe zegoen, txarrena itxaroten eta nire bihotzak... nire bihotzak are gehiago ikaratu nahi ninduen. Taupada bakoitza eztandarako abisu txikia zen niretzat. Ni ez nintzen batere indartsua, ez nuen horrelako min eta beldur nahasia jasateko ahalmenik. Nire pentsamenduak flotatzen zuten eta nire gorputzak jadanik ez zuen erantzunik ematen. Barruan zerbait falta zitzaidala nabaritzen nuen; bihotza haztatu ahal nuen baina, arima falta zitzaidan.

Sentsazio leun bat nabaritu nuen, laztan txiki bat; beldurra, ikara, izua eta laz-tura nire aurka jarri izan balira bezala izan zen, ni gainditzeko nahian.

Gelan bizi ziren itzal ikaragarriak bizia berreskuratzen hasi ziren, horrela, bat-batean, aurretik ezer esan gabe. Handiak eta gaiztoak ziren, sufriarazi nahi zidaten eta ni ez nintzen inoiz horrelako egoera batean sentitu. Nire begiek huts egiten zidaten, agian efektu optiko soila izango zen baina, nik ordurako ezin nuen errea-



Tortura hartatik ihes egiteko ahalegin etsi batean, nire bi eskuak lurrean fin-
katu nituen indarrez nire gorputza bultzatuz, hurbilen neukan edozeri heltzeko. Nire
gorputz osoa, oinetatik bururaino, arakatu zuen hotzikara jasanezina nabaritu
nuen. Hori ez zen oso ideia ona, beste modu batean alde egiteko moldatu behar-
ko nintzen. Beraz, lau oinean ibiltzea aukeratu nuen. Nire aurrean nuen beste hor-
mara iritsi nintzen ozta-ozta.

40

izan zen, benetan arraroa, ulergaitza. Biratu eta irteeraraino ibili nintzen, jarraitu eta urrutian arte baso bat bereizi nuen; nahiz eta ez nagoen oso ziur arte baso bat zenik, inoiz ez naiz zuhaitz motak desberdintzeko oso ona izan eta.

Bertara barneratu nintzen, birritan pentsatu gabe, ez nuen ezer galtzerik. Oinak estali gabe nituen, babesteko ezer gabe baina, ez nuen deus nabaritzen haien azpian. Sentsazio arraroa zen, oso arin flotatzen egongo banintz bezala, lurzorua ikutu gabe. Zuhaitzen artean, urrutian, itzal ilun bat ikusi nuen. Agian, itzala ere ez zen izango; seguruenik, nire garunaren akatsa izango zen, gezurra edo beste haluzinazioa. Naturaz gaindiko indar batek aurrera ibiltzeko indar egin ninduen, irudi arraro hartaraino iristeko asmoarekin. Enbor handiak eta adar puntazorrotzak ia konturatu gabe eta flotatzen egongo banintz bezalaxe saihestu nituen, bide estuari jarraituz. Ibiltzen jarraitu banuen ere, ez nintzen hartara ezer hurbildu, ezta metro bat ere. Hurbiltzen eta gerturatzen saiatzen nintzen neurrian, itzalak aurrerantz egiten zuen, nigandik ihes egiten ari balitz bezala. Baina horrek indar gehiago eman zidan eta lasterka hasi nintzen. Noizbait, dudatsu, bira ematen nuen atzerantz begiratzeko eta nire sorbalda seguru mantentzeko. Horrelako batean, nire helburuari berriz begiratu nionean, ezustean desagertu egin zen. Berriro, engainatuta sentitu nintzen eta batez ere zapuztuta nire burubide gaixoberak egindako jokoaz. Atsedean moduan, lurzoru hezean eseri nintzen eta zuhaitz sendoaren kontra etzan. Zorabiatzen hazita eta jada tontakeriez, sentsu gabeko jokoez, nire burmuinaren burlez eta atsedean faltaz nekatuta.

Nik ez nuen ezer egin, edo gutxienez ezer txarrik, hau merezitzeko. Gure mundua ez bezalakoa zen, oso desberdina. Bertan, ilusioa ez zen existitzen; zure helburua lortzen saiatzen bazinen ere zure indar guztiekin, ezin izango zenuen lortu. Erori, altxatu, jarraitu eta azkeneko momentuan, sorginkeriaz bezala, zure ametsak estuturik jausi egingo ziren sakan handi batetik, zati askotan puskatzen. Pertsona batek zure mugimendu bakoitzak kontrolatzen eta aztertzen eta zure sentimenduekin jolasten egongo balitz bezala sentitzen nuen. Sufriarazteko gogoarekin, lasaitasunez torturatuko zintuen, gozo-gozo, zure helburu guztiak guztiz apurtu arte. Nahasiko zizun, zurekin jolastuko luke, gezur soila izango litzateke geroago, tranpara hurbiltzeko eta orduan, erori, arinki erori.

Ni ez nintzen horrelako zigorrik jasateko egina, inor ez zen horrelakorik eusteko gai.

Ez nuen beste aukera izan, ezin nuen ihes egin. Itxaron egin behar nuen, sufritzen jarraitu eta norbaitek hortik ateratzeko ezinezko desira mantendu.

Denbora gutxira, orain oso ondo gogoratzen ez dudana, bat-batean esnatu nintzen. Bihotza eztanda egiteko zorian, azeleratuta, minduta, dudatsu, baina sakon nean lasai. Lasai sufrimendua jada amaitu zelako, berriz hasteko aukera nuelako, nire ametsak jarraitu ahal nituelako. Erlojua begiratu nuen esku izerditsuekin baina, ezin izan nuen eskumuturreko erlojuaren zenbakiak ongi bereizi nire begirada lainotsuarekin. Amesgaiztoaren ondoren, ezin izan nuen lokartu, beraz, zenbait denbora eman nuen hartaz pentsatzen eta aztertzen.

Egia esan, hau bakarrik abisu bat izan dela pentsatzen dut, motibazio txiki bat. Norbera bere desioen jabea da eta horregatik, norbera haiekin zer gertatuko

den aukeratzen duena ere. Bota, zapaldu, suntsitu edo manipulatu ahal dituzu, baina baita ere, gozoki zaindu, egunero elikatu ilusio eta itxaropenarekin eta hala-ber, irrikaz itxaron lortzeko momentuaren iristea.



Zuk erabakitzen duzu.

Bi koloreen arteko grisa

Irati Abad López

Miguel de Unamuno BHI.

Batzuetan hemen zer egiten dudan galdetzen diot neure buruari. Hemen ez, honela ez; hau ez da nahiko nukeena.

Bakarrik bizi naiz. Beno, bakar-bakarrik ez, baina neurri batean hori esan daiteke. Orain dela asko gauzak txarto joaten hasi ziren. Inori ez zaio hau gustatzen, baina badirudi ez dutela ezta atzamar bat mugituko konpontzeko.

Ama eta aitarekin nago etxean, baina ohe azpian dagoen hautsari baino kasu gutxiago egiten didate. Bakoitza gela batean dago.

Egia esan, orain dela asko ez garela egon hirurok batera etxean: aita beti lanean dago, gorbatadun tipo serio horietakoa da; ama abokatua da, baina orain dela asko ez duela bezerorik izan, lan egiteari utzi diola uste dut.

Etxean geratu naiz euria egiten duelako eta ia lagun guztiak ez daudelako hirian. Zubia kanpora pasatzera joan dira. 1. ebaluazioa bukatu dugu jada. Nota nahiko onak atera ditut laguntzarik gabe, neuk bakarrik, eta horregatik pozik nago.

Ama logelan dago, ordenagailuan film batzuk “on line” ikusten. Aita, ordea, sofan etzanda telebista ikusten, zigarroa erretzen duen bitartean.

Inoiz ez didate kasurik egiten eta haien artean ez dute ia ezertarako hitz egiten. Nazkatuta nago. Etxean jasan behar dudan



egoera ez da batere eroso inorentzat. Hemen egotea gorrotatzen dut, batzuetan ihes egiteko gogo itzela sortzen zait. Baina, nora? Hauxe da galdera.

Horma hauen artean dagoen gauza on bakarra nire piano maitea da. Hiru urte daramatzat pianoa jotzen eta nire azken urtebetetzean izugarrizko teklatura oparitu zidaten. Sorpresa itzela izan zen, egun hartara arte praka batzuk edo kamiseta grisen bat, besterik ez, oparitzen baitzidaten.

Grisa, pianoaren teklak nahastean kolore hori sortzen da. Horixe gertatzen zait niri: aita eta ama kontrakoak dira, zuria eta beltza. Ni erdian nago. Gris itsusi hori bezalakoa naiz, inori gustatzen ez zaiona, bi koloreen artean dagoena, baina ez duena ezer egiten han.



Pianoa jotzen dudanean, neure burua ikusten dut islatuta melodian. Tekla beltzak eta zuriak jotzen ditut, horrela grisa sortzen da: ni bezalakoa.

Hemezortzi urte bete bezain laster, hemendik alde egingo dut nire teklatu maitearekin eta gris kolorea sakabanatuko dut mundu osoan. Musikari famatua izatera ailegatuko naiz, ziur nago.

Baina ziur nago ere, bizitza honetan, bi aldeetara begiratu behar dela, eta ez

batera bakarrik. Bestela hor lotuta geratuko zara eta ezingo duzu korapiloa desegin. Agian, damutu egingo zara, agian ez. Baina gauza bat argi dago: grisa ez duzula inoiz ezagutuko, nire gurasoei gertatu zaien bezala; eta hori ez da ona, ez horixe.

Maitasunaren ondorioa

Lara Gil Benito
Gabriel Aresti BHI.

Lekeitioko mendi bateko tontorrean egurrez egindako txabola txiki bat zegoen. Han agure bat bizi zen bere ilobekin. Hauek aitonarekin bizi ziren haien gurasoak kotxe istripu batean hil zirelako oso txikiak zirenean. Bi neska eta mutil bat ziren; neskak, oso pinpirinak eta alaiak ziren, eta mutila, Ekain, nahiko itsusia, baina oso azkarra. Han ez zuten eskolarik, baina egunero 5 ordu ematen zituzten ikasten Patxirekin, haien aititarekin.

Egunero ipuin bi kontatzen zizkien, printzesen ipuin bat eta abenturazko beste bat. Bi neskak, Matxalen eta Eukene, bikiak zirenez beti guztia elkarrekin egiten zuten eta gustu berdinak zituzten.

Egun batean matematikak ikasi eta gero, aitona ipuinak kontatzera zihoanean, gauza arraroa gertatu zen: egun hartan bakarrik ipuin bat kontatuko zien, eta berak aukeratutakoa. Matxalen eta Eukeneri ez zitzaien batere gustatu ideia baze- kitelako ez zela izango printzesei buruzkoa, baina Ekaini asko gustatu zitzaion.

Orduan Patxi kontatzen hasi zen:

—Lehenengo eta behin esan behar dizuet kontatuko dizuedan istorio hau orain dela asko gertatu zela, eta benetan gertatu zela.

—Aitita, ez izan astuna! Kontatu behingoz!

—Bai, bai, hasiko naiz.

Behin batean orain dela 56 urte, edo 64, ez ez! 67 urte...

—Aitita berdin du! Hori ez da garrantzitsua —esan zuen Ekainek.

—Bai, garrantzitsua da! Gogoratu behar dut, ez da posible ez gogoratzea, nik memoria oso ona daukat.

—Aitita daukazun adinarekin zaila da gogoratzea, ez kezkatu! —esan zuen Matxelenek—. Aurrera egin ipuinarekin!

—Ongi da, ongi da,...

Orain dela urte asko gure etxe alboan bazegoen beste txabola bat, gurea bezalakoa baino itsusiagoa, jakina! Han nire laguna bizi zen, Antton. Oso mutil jatorra zen, baina ez zen oso azkarra eta besteentzako “Friki” bat zen. Betaurrekoak zituen eta hortz oso handiak, ez zen oso polita aurpegiz, baina neskekin egoteko gaitasun itzela zuen, Maitanerekin egon zen eta guzti! Maitane bai “chica guapa”! Benetan itzela! Begi berdeak eta morena morena...

—Aitita, medesez! Ez hasi! Kontatu ipuina eta ez joan adarretatik... —esan zuten umeek barrezka.

Benoa ba, Antton txabola hartan bizi zen bere guraso eta izekorekin. Eta bakarrik ostiral arratsaldean irteten ziren etxetik, beste egun guztietan etxean geratzen ziren.

—Zelako familia arraroa! Benetan!

Ostegun baten, gure atea jo zuten, atea ireki eta... Antton! Osteguna zen, ezinezkoa! Ni berbetan hasi nintzen, baina berak eskutik hartu eta korrika eramanez ninduen. Mendiaren atzeko partera iritsi ginen, han arroka erraldoi baten atzean ezkutatu ginen:

—Patxi, gauza garrantzitsu bat esan behar dizut. Zin egin ez diozula inori esango, nahiz eta gertatu ahal den txarrena gertatu.

—Bai, benga, ez esan astakeriarik. Esan zer den, eta ez izan hain dramatiko!

—Benetan, garrantzitsua da eta zu zara nire lagun on bakarra. Atzo goizean esnatu nintzen, egun normala zela iruditu zitzaidan eta gosaltzera joan nintzen. Nire familia mahaian zegoen eserita egunero bezala eta libre zegoen aulkian eseri nintzen.

Guztiak zeuden isilik, eta bat-batean “CRRAASH! entzun zen, nire aita-ren platera lurrera erori eta apurtu egin zen. Nire ama negarrez hasi zen, niri ez zitzaidan hainbesterako iruditzen, zerbait gertatzen zen. Ama aulkitik altxatu, niri musu bat eman eta alde egin zuen. Aitari zer gertatzen zen galdetu nion, eta berak hau esan zidan: “trankil egon, kontatuko dizugu, baina zure onerako ezin dizut orain kontatu”.

—Baina, ze demontre! Esan zure aitari kontatzeko behingoz! —esan nuen nik.

—Utzi amaitzen, Patxi! Nik nire aitak esan zidana esango dizut: jakin ezazu hau esatean zure bizitza aldatu egingo dela, pisu handi batekin biziko zarela.

—Jijijiji-egin zuten neskek barre. Hori pelikuletan esaten dute. Jijiji...

—Neskak, isildu! Entzun, bestela aitatik ez du inoiz amaituko eta oso interesgarri dago —esan zuen Ekainek.

Gure familian bazegoen gizon bat nire izekorekin ezkontuta zegoena, hau da, nire osaba. Bera gizon normala zen eta egun baten minbizia zuela esan zioten, eta hiru hilabete biziko zela. Orduan, gizonak hainbat gauza egin zituen hil baino lehen. Hil ondoren tanatoriora joan zen nire familia, eta nire gurasoek eskuan zauri bat zuela ikusi zuten, puntuak eman zizkiotela. Inoiz ez zioten ikusi eta inork ez zuen ezer esan horri buruz, beraz arraroa iruditu zitzaien. Ez zioten inori esan. Egun hartan, gauean, tanatoriora bueltatu ziren, ez zegoen inor osaba ikusten, beraz, eskua ikusi eta zauria begiratu zuten. Forma arraroa zuela ikusi zuten, giltza baten antza zuen.

Hurrengo egunean osaba lurperatu zuten, guztiak joan zirenean nire gurasoak han geratu ziren eta hilobia ireki zuten. Eskua moztu zioten eta berriro ere lurperatu zuten.

Etxean, zauria hobeto ikusi zuten, eta argi zegoen giltza zela. Orduan jositatu zenez, zauria ireki egin zioten eta gauza ikaragarria ikusi zuten: esku barruan giltza bat zegoen azalaren azpian! Giltza oso zaharra zen.



Orduan, nire izekoren etxera joan eta guztia kontatu zioten. Izeko harrituta geratu zen, ez zion ezer kontatu. Etxeko ate, kutxa, leiho,... guztiekin frogatu zuten, baina ez zen giltza aproposa.

Egunak normal pasa ziren, pasadan asteartea iritsi arte. Eskutitz bat iritsi zitzaien eta osabaren sinadura zuen eskutitz horrek. Ezinezkoa zen, osaba hilda zegoen.

—Ez dut ulertzen! Zer egin behar dut?

—Zer gertatu den ikertzen lagundu behar didazu badakit zuri asko gustatzen zaizula abentura, eta besteek ezin dute ezer jakin, bai?

—Ongi da! Oraintxe bertan hasiko gara. Eskutitza utz diezadakezu?

—Bai, etorri nirekin.

Eskutitza aspalditik idatzita zegoen, beraz hil baino lehen idatzi zuen. Baina zergatik iritsi zen hain berandu? Eta giltzak zertarako balio zuen?

Egunero pistaren bat gehiago zekiten, eta hilabete bat pasa ondoren, izekoren urtebetetzea heldu baino egun batzuk lehenago, azkenengo pista aurkitu zuten. Pista horrekin nondik bidali zuten jakin zezaketen, beraz, izekori esan eta guztiak hara joan ziren. Etxe hartan sartu eta ate, kutxa, leiho... guztiekin frogatu zuten. Ez zuten aurkitzen, bat-batean Antton lurrera jausi zen, eta baldosa bat altxatu zen. Horren azpian kutxa bat zegoen bihotz formarekin eta hauxe jartzen zuen: “espero dut giltza dagoen lekutik ez ateratzea”. Orduan, giltza horrekin saiatu eta kutxa ireki zen. Momentuan, etxearen jabea heldu zen eta han ikusi zituen guztiak.

—Baina zer egiten duzue nire etxean eta nortzuk zarete?

—Eta zu? Zergatik daukazu nire senarraren... Nikola? Zu zara? Baina zenbat denboora! —esan zuen izekok.

—Isabel! Zer moduuz? Laster zure urtebetetzea! Baina...zer egiten duzue hemen...?

—Zergatik daukazu zuk nire senarraren kutxa hori?

—Aaii...hori dela eta etorri zarete eee..! Banekien nik ez zenuela aguantatuko!

—Aguantatu noiz arte eta zer jakiteko?

—Eskuan duzun giltza hori zure senarrarena da, ezta? Bere eskuan zegoen sartuta?

—Bai, zer da Nikola? Zer gertatzen ari da?

—Kutxak eta giltza horrek historia bat zuten, eta bera hil denez niri eman zidan zuri emateko zure urtebetetze egunean, baina sorpresa eder hau apurtu duzue...

—Ez dugu apurtu, orain kontatu eta gure saiakeraren ondorioa askoz polita goa izango da.

—Ongi da, hil baino lehen Bernat ona etorri zen zuri opari hau emateko eta bi irtenbideen artean aukeratzeko. Kutxa honetan zuen argazkiak, eskutitzak nota-txoak eta zurekin pasatutako momentu guztiak daude. Eta kutxa ixtean giltza bere azalaren azpian gordetzea erabaki zuen.

—Baina zertarako?

—Hau zuri emateko esan zidan.-eskutitz bat zen.

Isabel irakurtzen hasi zen:

—Hau zure bihotza da, eta nik daukat honen giltza, nahi baduzu, giltza hartu eta zure bihotza irekita geratuko da beste mutilen-tzat, baina oraindik nirekin maiteminduta bazaude utzidazu zure bihotzaren jabe izaten, zu nirearena zarelako.

Isabel negarrez hasi zen eta beste guztiok ia-ia. Oso polita zen Bernatek egin zuena.

Isabelen urtebetetzean, giltza zegoen lekuan utzi genuen oraindik maiteminduta zegoelako eta bere bihotzaren jabe betirako izatea nahi zuelako.

—Ooo...Aitona ze istorio polita! —esan zuten bi neskek negarrez.

—Uaauu...ze azkarra zinen! Niri ere asko gustatzen zait abentura!

—Bai, historia ikaragarria benetan, hau da benetako maitasunaren ondorioa...





Naiara Ortega Aguayo
Miguel de Unamuno BHI.

1 996. urteko abenduaren 31 zen. Neguko gau hotz horretan Maite tripako minak jota zebilen. Maite 30 urteko emakume baxua eta argala zen. Bere begiek txinatar batenak ziruditen: txikiak eta luzeak. Bere ahoa txikia zen, baita bere sudurra ere. Esaten nengoenek, Maitek inoiz izandako tripako mina zuen. Bihotzak taupada egiten zuen bakoitzean, harentzat pistola batekin egindako tiro bat bezalakoa zen. Mina jasanezina egin zen eta Joxeri esan zion:

—Joxe, eraman ahal nauzu ospitalera? Uste dut Maialen bidean dagoela.

Ulertu ez duzuenontzat, Maite Joxeren emaztea zen; Maite haurdun zegoen (apirilaren 17tik) eta Maialen haien alabaren izena izango zen.

Joxe oso altua eta argala zen. Begi berdeak zituen eta haren ahoaren modukoak ziren, hau da, handi samarrak.

Momentu horretan Joxe eta Maite taxi batean sartu eta gidariari Bilbora joateko agindua eman zioten, hobeto esanda Basurtuko ospitalera. Baina Joxek eta Maitek zorte txarra izan zuten, gidaria mozkor baitzihoan. Lau aldiz pasatu zituen semaforoak gorriz, ia-ia hiru ume eta bi katu harrapatu zituen, momentu batean ez zekiten ezta non zeuden ere... desastre hutsa! Eta gainera, haurdunaldiarekin eta guzti, Maite zorabiatzen hasia zen, botaka egin zuen arte. Kotxe horretan zegoen usaina txerri korta batena baino txarragoa zen.

Azkenean (ordu bat eta erdi geroago) Basurtuko ospitalera heldu ziren. Jendez beterik zegoen, baina Joxeren garrasiek jendea albo batera mugiarazten zuten. Momentu bat galdu gabe laguntzaren bila joan ziren eta segituan erizain bat agertu zen.



Erizain hori ez zen besteak bezalakoa. Oso arraroa zen: bere sudurra txerri batena zirudien, bere ahotik kirats nazkagarria ateratzen zen eta gainera, ahate bat bezala ibiltzen zen.

Igogailuan sartu ziren, baina nahiz eta erizainak 3. pisuko botoia sakatu, hirurak 6. solairura joan ziren. Berriro 3. pisuko botoia sakatu, eta oraingoan 4. pisuan agertu ziren. Igogailuak “pgfhkldfgh! soinu egin zuen momentuan Joxe, Maite eta erizainak eskaileretatik joatea erabaki zuten, baina Maite oso nekatuta zegoenez Joxek besoetan eraman behar izan zuen. Azkenean 304. gelara heldu ziren. Han bibotedun doktore bat zegoen.

—Azkarrrrrrrr! Prrrrrrresssssa daukaggggu ettta! —esan zuen.

Ikusi ahal duzuenek, hizki batzuk ez zituen ondo esaten, eta horregatik, hitz egitean adurra botatzen zuen.

Orduan, Maite ohatila batean etzan zen eta...

Orain datozen gauzak pixka bat nazkagarriak direnez, ez ditut kontatuko.

Abenduaren 31n, gaueko 23:45ean, Joxek eta Maitek euren alaba ikusteko aukera izan zuten lehen aldiz.

15 minutu geroago, Joxean eta Lola (Maiteren gurasoak) eta Antxon eta Antonia (Joxeren gurasoak) heldu ziren. Joxeren gurasoek arropaz beteriko poltsa bat oparitu zieten, eta Maiteren gurasoek, aldiz, kaiola bat eraman zuten oparitzat. Bai, bai! Ondo irakurri duzue, kaiola bat, baina, ondo begiratura, kolore askotako zerbait ikus zitekeen kaiolaren barruan: loro bat zen!

Loroaren burua gorria eta laranja zen, eta gorputz berdea urdin koloreko buztan eder batean amaitzen zen.

Joxe eta Maite euren gurasoekin minutu luze batzuk hitz egin eta gero, agurtu egin zituzten, aitona-amona berriek lo egin behar zuten eta.

Joxe eta Maite bakarrik geratu zirenean, Joxek hau esan zuen:

—Orduan, nola deituko diogu gure alabari, Maialen, ezta?

—Oraingoz bai —esan zuen Maitek.

—Ondo da. Zer iruditzen zaizu lo egiten saiatzen bagara? —esan zion oraingoan Joxek Maiteri.

—Bai, onena izango da —erantzun zion Maitek.

Momentu horretan, biak lotara joan ziren.

Egunsentiko 4:25ak zirela, Joxe eta Maitek loroa kantari entzun zuten:

—Pipipipipi! Papapapapa! Esnatu, esnatu, esnatu, Ainhoa!

Joxe eta Maitek ez zuten piperrik ere ulertzen.

—Ainhoa, Ainhoa, neska polita, zelan doa zure bizitza? Zure izena Ainhoa bada, maiteko nauzu, ezta? —esan zuen berriro loroak

Orduan Maitek pentsatu zuen loroari Ainhoa izena gustatzen zitzaiola, eta horregatik Joxeri esan zion ea nahi zuen alabari Ainhoa deitu, loroaren omenez.

Joxeri ideia hori oso ona zela iruditu zitzaion.


Hurrengo egunak oso azkar pasatu ziren. Ainhoa bizkor hazten zen, eta loroarekin batera asko ikasten zuen.

Ainhoa, gaur egun, nagusia da, 31 urte ditu hain zuzen, eta maitekiro gogoratzen ditu loroarekin bizi izandako pasadizo batzuk, adibidez lehen hortza hazi zitzaionean, eta urte batzuk geroago erori; eskolako lehenengo eguna ere bereziki gogoratzen du; noski, jaunartzea; institutura joan zenean, e.a.

Baina benetan gustatzen zaion pasartea 2 urte zituela gertatu zitzaien: Ainhoa marrazki bizidunak ikusten ari zen, liluratuta zegoen protagonistarekin, eta foka eder hori Lorenzo deitzen zenez, loroari izen berdina ipintzea bururatu zitzaion. Eta Lorenzok bihotzez eskertu zuen izena izatea, momentu horretaraino “lorito, lorito” besterik ez zelako.

Orain galdetuko duzuen nor naizen ni: ni Lorenzo naiz eta nire istorioa konstatu dizuet. Ainhoak 31 urte izan arren, nirekin egotea gustuko du oraindik.

Ni zahartuta nago, baina nire bihotzak gazte eta indartsu jarraitzen du.



Amaiera



*Jone Askaiturrieta Ostolaza
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

“**B**azen behin, 14 urteko neskatila poloniarra begi urdin eta alaiak eta ile luze eta beltzarana zuena”. Ohiko ipuina izango balitz horrela hasiko litzateke, baina istorioa hau ez da horrelakoa, berezia da, norbaiti gertatu baitzitzaion eta ez duelako inolako amaiera goxorik. Hau, Ninaren istorioa da.

Hau guztia duela hamar bat urte hasiko zen. Ninak 14 urte bete berri zitue-nean haren adimenari esker Ingalaterrako barnetegi ospetsu batean sartzeko beka lortu zuen.

Nina mailetak eskuetan hartuta Varsoviako aireportuan zegoen haren lagun Janahren zain. Betidanik izan ziren lagun minak. Nina urduri zegoen han zer aurkituko ote zuen pentsatzen baina bere lagun Janahrekin joateak lasaitzen zuen. Baina Janah Ingalaterrara joateaz damutu egin zen. Hala ere, Ninak aurrera jarraitzea erabaki zuen, bizitza berria hasteko gogoa zuelako, gurasoengandik urrun; izan ere, bere aitak beraz arduratu ordez aitona desagertua bilatzen igaro zuen Ninaren haurtzaroa. Amona Elzbietak aitaz haurdun zegoela II. mundu gerra has-tean herrialdetik ihes egin zuen, senargaia Polonian utzita. Gerraren ostean Elzbieta Poloniara itzuli zen baina ez zuen senargaiaren arrastorik aurkitu, ez bizien ez hildakoen artean.

Bidaia osoan zehar Janahrekiko gorrotoaren, tristuraren eta han zer aurkituko zuen beldurraren arteko nahastea sentitzen zuen.

Arratsaldean iritsi zen St. Paul of Landsbridge barnetegira. Egun ingeles tipikoa zen hodeitsua eta hezea, Ingalaterrako bandera hiru koloreduna mugitzen zen, haizeak astinduta eta ikasleak taldeetan antolaturik eserita zeuden hitz egiten edo ikasle berriari begiratzten. Patioaren erdian Ninak deigarri gertatu zitzaion gizon baten eskultura ikusi zuen. Aitaren antza ikaragarria zeukan, beherantz begiratu eta haxe irakurri zuen:

“Dominik Nowak Flint, barnetegiaren XX-zuzendaria: 1917 (Varsovia, Polonia)-2001 (Liverpool, Ingalaterra)

Ninaren aurpegia zuritu egin zen... Gizon hura desagerturiko aitona ote zen? Baietz zirudien. Ezin zuen sinetsi.... bere aitona, amonak abandonatzean, bera bezala sentitu behar izan zuen Janahak hegazkinean bertan behera utzi zuenean. Bakardadea eta zeure ondoan laguntzen ez zaituen inor ez izatea ziren aitonak eta neskak elkarganatutako sentimenduak. Argi zegoen egoerak oso desberdinak zirela baina Ninak aitona ulertzen zuen. Agian bere aitonaren eta bere bizitza ez ziren hain desberdinak... Bat-batean zerbait argitu zitzaion buruan: paraleloak izango ziren aitonaren eta beraren bizitzak? Ideia hori guztiaren hasiera izan zen birus bat balitz bezala hedatu baitzen bere buruan.

Bat-bateko ideia horrek eraginda, Nina irrikan zegoen aitonaren datu gehiagorik ezagutzeko eta liburutegira jo zuen hari buruzko zerbait irakurtzeko. Fitxategian bilatu eta han aurkitu zuen 1987ko egunkari batean artikulua bat. Orria apurtu, poltsikoan sartu eta gelarantz abiatu zen, baina lehenbizi aitonaren eskulturaren aurrean geldialdixoa bat egin zuen.

Pentsamenduetan murgilduta zegoela neska talde bat hurbildu zitzaion barrezka eta algaraka.

—Aizu, neskato!!! Nor zarela uste duzu? Ezin dira eskulturak ukitu!!

—Barkatu, ez nekien. Nina dut izena poloniarra naiz eta barnetegian berria. Hau nire aitona da.

Neskak barreka hasi ziren, eta haietako batek hala esan zion Ninari:

—Ez asmatu gauzak, honek ez du familiarik. Ah eta gauza bat! Berria eta babesgabea izateak ez dizu bidea erraztuko. Beraz ibil zaitez kontuz, neskato, eta ez ausartu guri berriz hitz egitera geure baimenik gabe. Guk ez dugu behar lagun atzerritarrik. Ados?... Beno niri bost ados zauden ala ez! Benga, alde egin. Zeren zain zaude???

Neska horiek gaizki tratatu zuten baina hori haren amesgaiztoaren hasiera baino ez zen. Egunak pasatu ahala gero eta aldenduago sentitzen zen Nina. Jendea hari buruz gaizki-esaka zebilen eta hari buruzko gezurrak sakabanatzen zituzten: HIESa zuela, eskale bat baino ez zela, judua zela... Gutxi batzuk harengana hurbildu eta pena zutela eta lagundu nahiko luketela esaten zioten baina norbait haien ondotik pasatzean irainak botatzen zizkioten.

Babesleku bakarra logela zen, han irainetatik eta barreetatik urrun baitzegoen. Ninak aitonari buruzko artikulua berriro atera eta irakurtzen hasi zen:

“...Dominiken aita judua zen, errabinoa, hain zuzen ere, beraz haren familia naziek bilatzen zuten. Familiakoei buruzko gezurrak hedatu, eskubide-

ak ezeztatu, ahal zuten guztietan torturatu eta mespretxatu egiten zituzten. Beldurraren beldurrez, Familia osoa kartzelatu zutenean Dominikek mendian zegoen kobazulo batean bilatu zuen babesa eta segurtasuna. Han ezin zion inork ezer egin, ziur sentitzen zen”.

Bat-batean Nina gelditu egin zen. Bere logela bere kobazulo partikularra zela konturatu zen, han, bera ere ziur sentitzen zelako, etsaietatik babesturik. Aitonaren istorioa irakurtzeari ekin zion Ninak, haien bizitzan zehar antzeko egoerak, sentimenduak eta zoritxarrak bizi behar izan zituztela pentsatzen baitzuen.

Pixkanaka-pixkanaka Nina ohituz joan zen etengabeko irainetara, aitonaren istorioak indarra ematen ziolako. Are gehiago, gaizki sentitzen zenean artikulua atera eta aitonaren bizitzaren pasarte bat irakurtzen zuen.

Arratsalde batean, heziketa fisiko klasearen ondoren aldageletan zegoela ikaskide guztiak aldageletatik atera eta Nina behingoz lasai egongo zela pentsatu zuen. Baina ez. Atetik irteten saiatzean, ez zen irekitzen. Izan ere, aldageletako atea lokatu zituzten, Nina, han barruan, giltzapetuta utzita.

Kanpoaldean barreak entzuten ziren eta Ninak irakasleari deitzeko gogo zuen baina bazekien horrek ondorio larriak izango lituzkeela. Beraz, norbaitek ireki arte hantxe isilik mantentzea erabaki zuen. Orduak igarotzen zihoazen eta Nina gero eta urduriago eta etsiago zegoen. Ez zuen irtenbiderik aurkitzen... Berriz ere aitonaren istorioa atera eta irakurtzen hasi zen.

“...Dominikek Poloniatik tren ez ihes egitea pentsatua zuen baina 1939an alemaniarrek Poloniako irtenbideak bonbardatu zituzten poloniarren ihesa ekiditeko. Dominik itxaropenik gabe geratu zen han geratuko baitzen betiko ez zuelako irtenbiderik. Zorionez, nazien artean zegoen betiko lagun batek atzerrira zihoan nazien tren batean sartu zuen. Handik ihes egin zezan...”

Ninak ere norbaitek ateratzea espero zuen eta jenio bati egindako desira balitz bezala neskato ilegorri batek ireki zion.

—Atera zaitez, Nina. Sentitzen dut lehendik atera ez izana baina ez nuen nahi besteek ikustea.

Eskerrik asko esan baino lehen joana zen neskatoa. Baina Ninak ez zion haren laguntzaileari ardura gehiegirik eman gero eta liluratuago sentitzen zelako aitona eta bere bizitzaren antzekotasunekin...

Logelara heldu bezain laster egunkari zaharra atera eta irakurtzen jarraitu zuen; horrela, etorkizunean zer gertatuko zitzaion jakingo zuelakoan.

“...Dominik pozaren pozez zegoen behingoz lortu zuelako nahi zuena, Poloniatik kanpora zihoan tren batean zegoen. Baina gutxi iraun zuen bere poztasunak bat-batean jeneral nazietako batek poloniar baten presentziaren alarma jo baitzuen. Jeneral hori bere “laguna” izan zen. Dominikek ezin zuen sinetsi bere lagunak traizionatu egin zuenik, gorrotoak jota trenetik ihes egiten saiatu zen baina etsaiek harrapatu eta atxilotu egin zuten. Gela ilun batean sartu eta milaka galdera egin zizkieten torturatzen zuten bitartean. Baina Dominikek bazekien nola ihes egin...”

Hantxe bukatzen zen artikulua beste zatia apurtuta zegoelako.

Nina gero eta gehiago obsesionatzen ari zen, eta noizbait traizionatu egingo zutela ziur zegoen. Harrigarria badirudi ere, halaxe gertatu zitzaion:

Gogoratzen duzue neskato ilegorria? Ba, goiz hartan Nina patiotik paseatzen ari zela aitonaaren eskultura inguratzen zuen jende pilo bat ikusi zuen. Hurbildu eta eskultura erabat apurtuta zegoen... Erdian neskato ilegorria neska talde batek lagunduta ikusi zuen, zuzendaria ere bazegoen. Gehiago hurbildu eta laguna negar zotinka zegoen:

—...eta orduan ikusi nuen nola ikasle berriak, Ninak, eskulturari ostikada bat jo eta alde egiten zuen.

—Geuk ere ikusi genuen leihotik jauna —erantzun zuten besteek aldi berean.

—Nirekin etorri beharko zara, Nina. Egin duzuna oso larria da.

Bera ez zela izan esaten saiatu zen, baina inork ez zion entzuten eta zuzendariaren bulegoan, galdetegi batean bukatu zuen.

Inoiz esan al dizute birusak denboraldi batean lotan edo inaktibo egoten direla? Ba, Ninak garunean zeukan ideia kaltegarri horrek momentu horretan eztanda egin zuen. Orain, ez zuen berak bere bizitza kontrolatzen ditxosozko aitonaaren bizitza paralelo horrek baizik. Nina aitona balitz bezala sentitzen zen. Jada Ninak ez zuen zuzendaria ikusten jeneral nazi bat baizik bera torturatzen. Nina hainbat egunetan zehar inkubatutako eskizofreniak jota zegoen.

Hain garatua zegoen bere zoramena non zuzendariaren bulegotik korrika atera, aitzo bat hartu, lorategira joan eta oihukatzen hasi zen:

—Nazi madarikatuak!!! Zuetaz nekatuta nago! Guztiak hilko zaituztet!

Mundu guztia oihukatzen zegoen beldurrak akabaturik. Normala da, egunero ez baitzaitu zoro batek mehatxatzen. 5 irakasleren artean harrapatu, geldiarazi eta polizia furgoneta batean sartu zuten.

Eskizofrenia paranoidea diagnostikatu zioten eta bere jatorriko herriko psikiatrikora bidali zuten.

Horrela iritsi zen Nina hona, Varsoviako ospitale psikiatrikora, zoramenak jota.

Gaur egun, 10 urte geroago, hala jarraitzen du erabat zoratuta. Ez da ezta bere psikiatra ezagutzeko gai izan, nahiz eta bere betiko laguna izan den: Janah historia honen narratzailea eta Ninaren zoramenaren erruduna bakarrik uzteagatik bizitzako momenturik erabakigarrienean.

Bueno istorio hau ipuin tradizional bat bezala hasi bagenu, ongi legoke hala bukatzea: “Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan, eta atera dadila Varsoviako plazan”.



Luciaren egunerokoa

Zuriñe González Cimadevilla
San Adrian BHI.

Kaixo ni Lucia naiz, 16 urte ditut eta hau izango da nire egunerokoa. Egia esan egunerokoak gorroto ditut. Beti galdera berdina: zertarako balio dute? Baina egin beharra. Gure euskarako irakasleak Maite andereñoak, lan hau bidali digu oporretarako. Nire ustez oporrak lagunekin eta familiarekin egoteko eta ondo pasatzeko dira, ez lan nazkagarri hauek egiteko; nik ulertzen dut lan pixka bat bidali behar digutela gaiak errepasatzeko, baina kristoren korapiloa egiten zait sabelean etxerako lanetan pentsatzen dudana bakoitzean, EZ DAGO ESKUBIDERIK!



Urtarrilaren 10a (Astelehena)

Gaur goizean institutuko lehenengo eguna Gabonetako oporretatik bueltan. Oso ondo pasatu ditut Gabonak nire lagunekin: Leire, Mar, Hanae eta Ainhoa, baina orain institutura joan beharra, ikastera eta lan egitera. Institutura nire amak eramane nau, eta hor zeuden Marta, Paula eta Mirari, nire institutuko neska pijoe-

nak eta nazkagarrienak. Beraien ustez mundu osoko zilborrak dira eta besteak baino politagoak eta hoberenak dira. Nire mailan bi talde daude nagusiki: Marta, Paula eta Mirari, eta bigarrena: Leire, Mar, Hanae, Ainhoa eta bostok. Egia esan, bizitza emango nuke beste taldera pasatzeko, nire lagunak asko maite ditut eta mai-tagarriak dira, baina besteak... mutilekin ateratzen dira kalera...etb popularrenak dira. Gaur nazkatu naiz frikia izateaz eta arratsaldean nire amarekin erosketak egi-tera joan naiz. Arropa modernoagoa erosi dut, baina ez hain modernoa Mirarik eta bere taldekoak eramaten duten bezalakoa.

Urtarrilaren 11 (Asteartea)



Atzo amarekin erosi nituen arropak era-man ditut institutura. Jateko orduan, komune-ra joan naiz eta hara ze sorpresa, Mirari, beste taldeko “erregina” nigana hurreratu da eta haxe esan dit:

Lucia, ze kamiseta hain polita darama-zun soinean. Nahi duzu arratsaldean gurekin geratu, eta erosketak egitera joango gara?

Nik, pozez zoratuta, baietz esan diot eta deituko didala esan dit. Arratsaldea pasa eta Mirarik ez dit deitu. Azkenean nire telefonoa hartu eta deitu egin diot. Beraingana joan naizenean, arropa denda batean zeuden. Ni ez naiz sekula arropa denda horretara sartu, baina bat-batean lapurtzen ikusi ditut. Hara, ze sorpresa!! Nik nire bizitzan ez dut inoiz lapurtu. Azke-nean konbentzitu ninduten eta lapurtzen hasi naiz. Ez naiz oso ondo sentitzen lapurtzen baina beraiek egiten badute oso GUAY da. Bost neskak oso pozik ibili gara klean, oso ondo sentitu naiz. Oso lagun minak egiten ari gara denak, baina Mirari eta ni bereziki.

Urtarrilaren 15a (Larunbata)

Asteburua ailegatu da eta nik Mirari nire etxera asteburua pasatzera gonbidatu dut. Oso ondo pasa dut asteburua nire lagun berriare-kin. Larunbat gauean nire lagun berriekin dis-koteka batera joan naiz. Nire bizitzan inoiz ez naiz hara joan, baina egun batean izan behar da nire lehenengo aldia, ez da?? Mutil asko ezagutu ditugu, baina ez nintzen oso ondo sen-titzen giro horretan eta gainera joan ahal iza-teko nire amari gezur bat esan diot. Baina dena dela oso ondo pasatu dut eta nire ustez hori da inportanteena. Goizean etorri gara etxera zazpiak inguruan. Biok mozkortuta etorri gara. Nire ama ez zegoen gure zain, Mirariren etxera lo egitera joango ginela esan diodalako, eta ez da enteratu mozkortuta geundela. Dena ondo atera zait!



Urtarrilaren 16a (Igandea)



Mirariren etxera joan naiz eta bere izekorekin bizi da. Nik ere nire izekorekin bizi nahi dut. Bere izekok dena egiten uzten diolako. Igande arratsaldean mingai-nean pirsing bat egitera joan naiz Mirarirekin eta nire amaren baimen barik. Oso polita geratu da eta arratsaldean Mirarik nire etxean beste pirsing bat egin dit zilbo-rean. Min handia egin dit, orratz batez egin didalako.

Urtarrilaren 17a (Astelehena)

Astelehena ailegatu da. Egunerokoa entregatu dugu, baina egunerokoaren iritzia aldatu dut, eta orain hemen nago nire egunerokoa idazten. Orain asko gustatzen zait hau idaztea, nire sentimenduak eta emozioak espresatzen ditudalako eta ez duelako inork irakurtzen. Nirea da, bakarrik nirea.

Urtarrilaren 18a (Asteartea)

Institutura ailegatu naiz. Naturako irakaslea han zegoen. Klasea hasi denean, Naturako idazlanak entregatzeko eskatu ditu. Hau da sorpresa!! Ez naiz gogoratu eta ez dut ezer egin, asteburu osoa pasa dut Mirariren lagunekin eta festetan. Niri inoiz ere ez didate negatibo bat ipini. Zer egingo dut?? Eta gainera Leirek, Mark, Hanaek eta Ainhoak ez didate abisua eman. NESKA NASKAGARRI HAUEK! Nik uste nuen nire lagunak zirela eta ez didate ezer esan, TONTOLAPIKOAK! Beraingana aurreratu naiz eta hauxe esan diet:

—Zergatik ez didazue naturako idazlana gaur entregatu behar zela gogoratu??

—Nik SMS bat bidali dizut, baina mugikorra amatatuta zeneukan —Leirek.

—Nik etxera deitu nizun larunbat gauean baina zure amak esan zidan Mirariren etxean zeundela —Hanaek.

—Bale-Bale, barkatu txarto pentsatu dudalako.

Urtarrilaren 23a (Igandea)

Orain Mirarik asteburu guztietan gure etxean lo egiten du, ni oso pozik nago horrekin nire lagun bat nirekin bizi delako. Nik neure burua desberdin ikusten dut. Asko aldatu naiz. Asteazkenean nire amarekin hitz egin nuen, bueno, hobeto esanda berak nirekin. Esan zidan Mirarirekin egoteak ez didala gauza onik ematen, gauza txarrak aportatzen dizkit. Berak ez daki ezer, baina esaten dit Mirarirekin egon naizenetik oso aldatuta nagoela. Mirari egun guztietan bezala nigana etortzen da baina, gaur mesede bat eskatu dit:

—Luzia, mesede bat egingo didazu?

—Bai, bota.

—Zure etxean bizitzen geratu ahal naiz?? Zure amari esango diogu arratsaldean eta biok elkarrekin biziko gara ahizpak izango bagina bezala.

Ni aho zabalik geratu naiz mesede hori entzutean, baina gero buruan bueltak ematean ez zait ideia txarra iruditu, eta baietz esan diot. Arratsaldean nire amarengana joan gara, dena esan diogu, eta, ni bezala, aho zabalik geratu da. Pentsatu behar duela esan digu. Gero niri momentu bat geratzeko esan dit eta errieta egin dit, arazo batean sartu dudalako. Nik Mirarirekin hitz egiteko esan dit eta ezetz esateko. Lehenengoz ez naiz ausartu, nire laguna delako eta agian haserretuko delako.

Institutuan dena esan diot eta, dirudienez, ez da asko haserretu. Baina egun osoa ez da nirekin berdin portatu, pixka bat baztertuta utzi nau, eta arratsaldean ez da nirekin etxera bueltatu. Bakarrik utzi nau eta Marta, Paula eta mutilekin mutil baten kotxean bueltatu dira. Etxera helduz Mirari nire etxean zegoen, bere izeko eta nire amarekin. Ama errieta egiten hasi zait. Mirarik dena kontatu die baina bakarrik nirea; edaten nuela esan dio, erretzen nuela, festetara joaten nintzela eta Mirari nirekin festetara joaten behartzen nuela, eta nirekin zegoen egun batean jausi egin zen eta beltzune bat egin zuen, eta nik jotzen diodala esan du. Nire amak hori ez du sinetsi eta ni defendatzen hasi da. Gero Mirariren izekori gure etxetik alde egiteko esan zion, eta familia hori ez zegoela burutik sano.

Urtarrilaren 24a (Astelehena)

Mirarik eta bere lagunak ez didate ezer esan, nitaz pasatu egiten dute. Nik amorru handia daukat nire etxean kontatutakoa gezurra delako, bera neska onaren eta biktimaren papera egin duelako eta nik, txarrarena.

Urtarrilaren 27a (Osteguna)

Ni egun batzuk bakarrik egon naiz. Nire iazko lagunak, hau da, Leire, Hanae, Mar eta Ainhoa hor zeuden baina ez nintzen haiengana joatera ausartzen min handia egin nielako. Lehenengoz bakarrik utzi nituen eta besteekin joan nintzen, eta gero errieta egiten nien ezergatik. Baina gaur bat-batean beraiek nigana etorri dira eta haxe esan didate:

—Bakarrik utzi zaituzte TONTOLAPIKO hauek?

—Bai, Mirarik nire etxean bizi nahi zuelako eta nire amak ez diolako utzi.

—Ez egin kasurik, ez dauka erremediorik, gurekin bueltatu nahi duzu?

—Zuek nahi baduzue... niretzat primeran

—Bai, gurekin bueltatzea nahi dugu.

—Barkatu min handia egiteagatik, ez dut zuek bezalako lagunak merezi.

—Ez esan txorakeriarik, horretarako daude lagunak, eta gainera gauza bat ikasi duzu.

—Bai, egia da, gauza bat. Ez, milioika gauza ikasi ditut.

Nire bizitzako istorio honi esker konturatu egin naiz FAMATUA izatea ez dela onena, eta lagunak altxor bat bezalakoak direla.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Maitasun aitorpenik ederrena

Maitane Sobrino Alonso
Artxandape Ikastola HLBHIP.

“**N**oahrentzat, zure irriak istorio hau kontatu didalako”.

Begiak itxi, arnasa hartu eta nire aurpegian irribarre bat marraztu da eskaintza hau irakurri ondoren. Gaztea naiz, bai, baina hala ere, ez dut uste inork nire bizitza osoan zehar horrelako hitz ederrik idatziko didanik. Irakurtzea gustuko dudala esan dezaket eta liburu guztietatik arretarik gehien eskaintzetan jartzen dut. Ziur nago idazle bakoitzak pertsona batengan pentsatzen idazten dituela bere pasadizo eta abenturak. Berriro irribarre bat. Argi dago, gai honek asko hunkitzen nauela... eta dena tutoretzako klase batean hasi zela pentsatzea...

—Egun on, ikasleok! —oihukatu zuen tutoreak—. Aurtengo tutoretza klaseetan proiektu bat landuko dugu adineko pertsonekin! Ezagutu, lagundu, eta ulertu ditazuen astero ordu bat emango duzue beraiekin. Hasi baino lehen, Bilboko aitoa-amonei buruz zer pentsatzen duzuen jakitea gustatuko litzaidake!

—Puff..., zein gai aspergarria. Zaharrek kexatzen baino ez dakite! Herenegun, lonja itxi ziguten goian bizi diren aitona-amonek zarata handia egiten genuela esaten zutelako eta, salatu ondoren, txapo, lonja itxi eta ardura bat gutxiago poliziarentzat. Eta hori zahar horien erruz! —argitu zuen Ekaitzek.

Horrela, gutxi-gutxika, ikasle guztiek euren iritzia eman zuten eta irakasleak lasai entzun behar izan zituen iritzia bakoitzari gehiago, kexak ziruditenak. Argi utzi zuten, alajaina, DBH 4. Mailako gazte haiek ez zituztela adineko pertsonak atsegin.

—Beno, beno... ba aurten tutoretzako orduetan, aitona-amonekin pasatuko dugu gure denbora. Batzuk egoitza batera joango zarete, beste batzuk, adibidez, zu Ekaitz, lonja itxi zizueten aitona-amonen etxera joatea nahiko nuke. Eta helburu nagusia da, kurtso amaieran honi buruz beste hausnarketa bat egitea, sakonagoa eta landuagoa, noski. Horrekin batera, lan horretan zuen ametsa zein den argitu beharko didazue. Zer nahi duzue geroaldirako, bizitzak zein opari egitea gustatuko litzaizueke?

Berriro, lehen irribarrea eragin didan liburua hartu eta istorioa irakurtzeari ekin diot, neure buruari Noah delako hori zein zoriontsu izango ote den galdetzen diodan bitartean.

Astelehena zen, edonork gorrotatzen duen egunetako bat. Hotz handia egiten zuen eta zeruak ez zuen euria botatzeari uzteko asmorik. Lehenengo orduan tutoretza genuen eta beraz, egoitza ezezagun hartara joatea egokitu zitzaidan. Nirekin batera Jokin zetorren, klaseko mutilik jatorrena. Gero, bera 1. solairura joan zen, ni, ordea, 3. solairura. Irakasleak argitu zuenez, bakarrik dauden aitona-amonak zaindu eta haiekin hitz egin behar genuen... Galduta sentitzen nintzen. Korridorean hamar bat aitona-amona zeuden, batzuk hizketan, beste batzuk abesten edo otoitz egiten, azkenengo batzuk, Morfeoren lagun egiten hasiak ziren. Erizain batengana hurbildu nintzen:

—Aupa, Nerea naiz eta...

Nire azalpenak ebakirik, nire zain balego bezala, solasean hasi zen:

—Bai, noski. Egun on lastana! Ez dakizu zein pozik gauden langile guztiak zuen adineko gazteak hemen edukitzearekin! Zuri, zehazki, 204. logelan dagoen amonarekin egotea egokitu zaizu. Nahiko berezia da. Bere senarra orain dela urte batzuk hil zen eta orduz geroztik ez du inorekin hitz egin. Gizon hura asko maite zuela dirudi, gehiegi beharbada. Ez da zurekin txarra ez zakarra izango, horrekin lasai egon zaitez, baina ez ezazu desilusiorik eraman jaramon handirik egiten ez badizu edo arretarik jartzen ez badizu... Badakizu, txiki, zahartzaroa oso garai berezia da eta batzuek beste batzuek baino txarrago igarotzen dute. Baina ez etsi! Kurtso amaieran hausnarketa on bat egin nahi baduzu, bere laguna egiten saia zaitez! Edozer behar izanez gero, hemen izango nauzu! Zorte on! —hau esan ondoren, buelta eman eta ibilkera urduria zuen erizain jator horrek alde egin zuen.

Ni beraz, 204. logela bilatzen hasi nintzen eta egia esan ez nuen azkar aurkitzeko presarik, bilatzen zenbat eta gehiago eman ez gero, denbora gutxiago igaro behar izango nukeelako amona berezi harekin.

201, 202, 203... eta 204, noski. Tok, tok, tok. Erantzunik ez. Tok, tok, tok. Esaten dute edukazio txarrekoa dela baimenik gabe horrelako leku batean sartzea, bada, uste dut egun hartan edukazio guztia etxean utzi nuela, logela hartara sartu bainintzen. Barruan, amona bat aurkitu nuen, nahiko zaharkitua baina bere begi berdeek eta urdindutako ile argiak, garai batean gazte ilehori eta ederra izan zela agerian uzten zuten.

—Egun on, andrea. Nerea naiz, zurekin hitz egitera etorri den ikaslea. Zer moduz egin duzu lo?

Berriro ere, katuak mihia moztu izan balio bezala, ez zuen ezer esaten. Isiltasun hark egiten zuen zarata bortitzarekin bukatzeko edo, galdera gehiago egin nizekion, baina bere arreta lortzea ezinezkoa zela ikusi nuenean, irakurtzen nenbilen liburua atera eta, beti bezala, lehenengo orriko eskaintza irakurri nuen.

Bat-batean amonak negarrari ekin zion, pozik zegoela zirudien eta horrek nahastu egin ninduen. Aspalditik, hitzak gordeta zituen antza eta geldialdirik egin gabe hizketan hasi zen:

—Badakizu nork idatzi zuen liburu hori? Ba al dakizu? Nire senarrak, nire senar maiteak. Gaztetan ezagutu nuen, familia ingelesa dut eta bertan ezagutu nuen bera. Berak oparitu zidan historian egon den maitasun istoriorik politena. Idazlea zen, xelebrea, irudimen handikoa. Hitzek berarentzat zentzu ezberdina zuten nolabait, idaztean hitzak lotu eta esaldien ordeztu, edertasuna lortzen zuen. Bere eskaintzak inoiz egin diren maitasun aitortpenik ederrenak izan dira. Eta zin dagizut, bere bizitzako azkenengo egunera arte ez ziola idazteari, sortzeari utzi. Liburu guztiak niri dedikatu dizkit. Ez dakit antzeman duzun, baina lehenengo orrian nire izena ageri da, Noah, ikusten duzu? ikusten duzu? —errepikatu zidan ate ondoan bere izena erakusten zuen karteltxo seinalatuz.

Momentu horretan, hotzikara batek nire gorputz osoa zeharkatu zuen. Hainbat aldiz galdetu nion neure buruari nola sentituko ote zen Noah hura eta momentu hartan, neure begien aurrean, neukan erantzuna. Negarrari eman nion neuk ere, entzundakoa sinetsi ezinik. Baina zorionez beteriko negarra zen nirea, galdutako zerbait aurkitzen duen pertsonaren negarraren antzekoa, behingoz erantzun bat lortu duen norbaitena. Orduan bai, segidan jakin nuen zein zen nire ametsa... Noahk izan zuen istorioa nik ere bizitzea.

Urte osoan zehar bisitatu nuen emakume hura. Egunero bere hitzekin amets berriak sortzen zizkidan, noizbait niretzat horrelako eskaintza bat aurkitzearen esperoan:

“Nerearentzat, zure irriak istorio hau kontatu didalako”.



Ni hemen eta aita urrun

*Iker Abrisketa Gutierrez
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

Ni jaio nintzenean nire aita, Imanol, espetxean zegoen.

Nire lehenengo urteetan, nire aita atzerrian lanean zegoela pentsatzen nuen, nire familian horrela adierazi zidatelako.

Nire eskolako lagunek aita zeukaten, batek izan ezik, Josuk. Berarekin oso harreman ona nuen, biok aitaren falta nabaritzen genuelako. Josu nire lagun onena zen, biok eskupilotara jolasten genuen klub berberean, eskola berera joaten ginen eta denbora luzea elkarrekin pasatzen genuen.

Nire amak noizean behin aita ikustera joaten zela esaten zidan eta ni amarekin uzten ninduen. Itzultzean beti aitaren oparia eta gutuna ekartzen zizkidan. Gutunean aitaren argazkiak ikusten nituen eta zenbat maite ninduen adierazten zidan.

Nagusitzean, galderak egiten hasi nintzen eta amak hamabi urte bete nitue-
nean egia kontatu zidan. Nire aita kartzelan zegoen ETAn aritzeagatik...

Atentatuak egiten Euskal Herria askatuko zutela sinesten zuen. Madrilgo tren-
bide batean lehergailu bat jarri zuen, beste bost kiderekin. Ez zuten inor hil, baina
kalte handiak egin zituzten trenbide eta tren geltokian.



Handik urtebetera, harrapatu zutenean, Cadizera bidali zuten oso urrun zegoelako eta bere senideak gutxitan bisitatzeko.

Nire amari aita ezagutzera eraman nintzan eskatu nion eta handik urte erdira Cadizera abiatu nintzen nire ama eta nire aitaren gurasoekin. Oso urduri nengoen, nire aitaren argazkiak ikusita izanda ere, eta itxuraz nola zen jakin arren, ukitu eta sentitu nahi nuen.

Kotxea kartzelako aparkalekuan utzi genuen. Kartzela oso handia zen, guztiz zuria, eta ez zegoen leiho bakar bat ere barrote lodi barik. Sarreran kontrol ugari zeuden; lehenengo, polizia bati gure izenak eta datuak eman behar genizkion. Gero, ate batetik pasatu ondoren arakatu egin gintuzten.

Nire aita ikusteko ordua ailegatu zen. Nahiz eta oso urduri egon, barrutik oso pozik nengoen nire aita lehenengo aldiz ikusiko nuelako. Metalezko mahai baten aurrean itxaroteko eskatu ziguten; bost minutu ostean ate bat ireki zen eta nire aita atera zen. Denak besarkatzen hasi ziren baina ni lotsatuta eta zer esan jakin gabe nengonez, aitak niregana hurbildu behar izan zuen. Oso estu besarkatu genuen elkar. Lehenengo minutuak pasata, buruan neuzkan galdera guztiak bota nizkion eta gus-tura entzun nituen bere erantzunak. Nire aitarekin izan nuen lehenengo elkarrizketa zen. Joateko ordua heldu zenean, ezin izan nien malkoei eutsi. Azkenean denok negarrez geunden. Nire aita ez zen gaiztoa, bide okerra hartuta erratu zen.



Hurrengo lau urtetan nire aita bisitatzera hiru hilabetero joaten nintzen eta elkar hobeto ezagutu genuen.

Hamasei urte bete nituenean askatu zuten. Urtebetetzeko oparirik hoberena izan zen. Etixerako bidean etorkizunari buruz hitz egiten hasi ginen eta nire aitak zin egin zidan ez zuela berriz horrelakorik egingo nire ondoan egoteko.

Handik aurrera nire egunak oso zoriontsuak izan ziren, aitarekin mendira joan, eskupilota partiduetara jolastu, ospakizunak ospatu, Athletic-eko partiduak elkarrekin ikusi...

Nahiz eta nire aita ondoan izan, ez dut Josu laguna baztertu; beti egon naiz berarekin eta Josu bakarrik ez uzten saiatu naiz.

Orain 25 urte ditut. ETAk borroka utzi du, baina oraindik preso asko urrun daude eta ni bezalako ume batzuek ezin dute bere aita edo ama nahi dutenean ikusi.

Zergatik jaio nintzen emakume?

*Iratxe Moreno González
Berrio-Otxoa HLBHIP.*



Nire izena Abda da eta Afganistanen jaio nintzen duela hamasei urte. Hau nire heriotzaren aurreko eskutitza dela esatea gustatuko litzaidake baina, zoritxarrez, ez da horrela.

Ezin dut neure buruaz beste egin ere... Kartzelan nago eta hemen emango ditut hurrengo hamabi urteak, edo gehiago... Hau idazteak lasaituko nauela espero dut, baina ez daukat itxaropen gehiegi horri buruz. Espero dudan

gauza bakarra gutun hau norbaitek irakurtzea da eta gertatu zaidana inori gehiagori ez gertatzea, benetan...

Zergatik nagoen hemen? Zer egin dudan hau merezi izateko? Nik ere jakin nahiko nuke hori...

Orain arte min baino ez didate egin eta...

Dena duela aste bat gertatu zen. Kaletik nenbilen, nire buruko zapia ez jaustez kezkatutik, haizea baitzebilen. Horregatik sartu nintzen jenderik gabeko kale hartatik. Nire errua izan zen... Beso batzuek gelditu ninduten, eta buruan kolpe bat jaso nuen, hormaren kontra. Pixka bat zorabiatuta nengoen, baina argi ikusi nuen gizon haren begirada eta irribarre lizuna.

Berarengandik urruntzen saiatu nintzen. Ezinezkoa, ni baino askoz indar handiagoa zeukan.

—Ez zaitez mugitu! —oihukatu zidan.

Erabat beldurtuta nengoen, ez nekien zer egin. Oihukatu nahi egin nuen, baina ez zitzaidan ahotsa ateratzen. Musu eman zidan eta bere mihiaren zapore garratza sentitu nuen. Argi zegoen edanda zegoela. Nazkatuta nengoen oso eta zorabiatuta sentitzen nintzen. Erresistentzia pixka bat jartzen nuen bakoitzean, gehiago estutzen zizkidan eskumuturrak hormaren kontra. Izugarrizko mina egiten zidan, ukitzen ninduen bakoitzean sua sentitzen nuen nire gorputzean, benetan erreko banindu bezala.

Nigandik pixka bat banandu zen eta dena amaitu zela pentsatu nuen. Ezin nintzen okerrago egon. Prakak jaitsi zituen eta ihes egiteko aukera ikusi nuen, baina mugitzen hasi nintzenean zaplazteko bat eman zidan. Horrek ere erretzen zuen... Malkoak nire begietan gero eta gehiago ziren. Odola sentitzen nuen nire ahotik jaisten, eta bere zaporea ere dastatu nuen. Berriro jarri zen nire parean eta orduan... Barrutik bitan zatitu banindu bezala sentitu nintzen. Mina, mina, izugarrizko mina. Honako honetan bai oihukatu nuen, eta berriz hormaren kontra kolpe bat jaso nuen buruan. Benetan txarto sentitzen nintzen, eta gizon hark hain gogor hormaren kontra bere bi eskuekin eutsi ez balit, jauzi egingo nintzatekeen.

Ez dakit zenbat denbora egon zen nire barruan, baina niretzat urteak izan ziren, minez eta sufrimenduz beteriko urteak... Azkenik, amaitu zenean, bertan utzi ninduen, odoletan eta negarrez. Odola nabaritzen nuen nire hankartetik irteten, ezin nion eutsi neure pisuari eta lurrera erori nintzen. Iluntasuna nagusitu zen eta konortea galdu egin nuen.

Ezin nuen sinetsi... Hori al zen nire amak esaten zuena? Hori al zen “gizon bat konplazitzea”? Kasu horretan ideia ez zitzaidan batere gustatzen...

Ospitalean egon nintzen ia aste oso bat. Nire gurasoak oso haserre zeuden nirekin, huts egin bainien... Polizia ere etorri zen nirekin hitz egitera. Gertatutakoa kontatu nienean... Gaitzespen bat bete beharko nuela esan zidaten, “adulterioa” atxikitzen baitzidaten, gizon harekin ezkondata ez egoteagatik.

Adulterioa? Zergatik? Nik ez nuen ezer egin eta! Kalean, manifestazioak zeuden egunero. Zertarako? Gizon harekin ezkon nendin eskatzeko. Ez nuen ulertzen, benetan... Horregatik nago gaur hemen, kartzelan, nahiago dudalako hemen egon gizon hori berriro ikusi baino.

Zergatik? Zergatik jaio nintzen emakume? Gizona izan banintz kalean eta pozik egongo nintzatekeen... Zein da desberdintasuna? Zergatik? Berak zerbait txarto egin eta ez diote ezer egingo, ni txarto pasatu dudana izan naiz eta hemen nago, kartzelan hamasei urterekin.

Hemen ez nau inork ulertzen... Orain bi aukera dauzkat... Edo bortxatu ninduen gizonarekin ezkondu edo kartzela honetan hil... eta zergatik? Emakumea naizelako...

AURREIRITZIRIK EZ!

Amaia Monsalvo Alonso
Ntra. Sra. de Begoña LBHIP.

Nire hamalagarren urtebetetzea zen. Goizean goiz altxatu nintzen nire gurasoak esnatzeko eta oparietako estalkia apurtzeko. Astelehena zen eta gurasoak ez ziren esnatu zortzi eta erdiak arte. Orduan, nire opariak irekitzen hasi nintzen. Lehenengo oparia eguneroko more bat zen, Asko gustatzen zait more kolorea. Horregatik, ikusi nuenetik bertan idazten dut zeozer gauero. Hurrengo oparia ez zitzaidan gehiegi gustatu, nire erlijioan, Islama, gaztaroan burka jartzen hasi behar zarelako. Nik ez nuen gustuko ez nuelako Alarengan sinesten eta beldur nintzelako nire klaseko kideek ez ote zuten nitaz barre egingo, janzkera hura ikusita.

Lagun asko nituen eskolan: Maite, Nerea, Iratxe... Guztiak oso jatorrak ziren baina baditut ezkutuko miresle batzuk ere.

Nire urtebetetze egunean aitagarekin eskolara joateko agindu zidan. Ezin nion aitari ezetzik eman; eta hala, nire beldurrekin eskolara abiatu nintzen. Bertara iritsi bezain laster Iratxerekin egin nuen topo. Ez zidan ezer esan nire burka berriari buruz. Klasera igo ginen biok batera egun normal bat izango balitz bezala. Nire klasea eskolako hirugarren pisuan zegoen. 3. DBH-ko pasilloan sartu eta bat-batean norbait barrezka entzun nuen eta nire begi berde politak malkotan bustitzen hasi ziren. Buelta eman nuen, baina barrezka zegoen mutila ez zen nitaz barre egingen ari. Ufff... Zelako sustoa!

3. DBH-ko D taldeko klaseko atletik pasatu nintzenean, nire lagunak bertan zeuden. Mutilek arraro samar begiratu zidaten eta urduri jarri nintzen. Baina nire lagun taldea nireganantz hurbiltzen hasi zen eta seguruago sentitu nintzen. Baina lagun taldean norbait falta zen, Nekane! Nire lagunei galdetu nien ea non zegoen. Klasearen atzeko aldean zegoen mutilekin berbetan. Beraganantz ibiltzen hasiak ginen. Baina, nola oso ondo jakin barik, bat-batean bakarrik geratu nintzen mahai aurrean. Lagunak Nekanerekin zeuden hizketan eta haserretu zirela zirudien. Euskarako klasea hasi zen.

Riiiiing! Patiora jaisteko ordua zela adierazten zuen txirrinak jo zuen. Guztiak korrika joan ginen patiora baina Nekane falta zen. Beraz galdetu nuen berriro ea zer gertatzen zitzaion. Eta azkenean, kontatu zidaten: Nekane ez zuen nahi nirekin etorri nire janzkera berria ez zitzaiolako gustatzen. Lotsa ematen zion burkadun neska batekin kaletik ibiltzeak. Oso txarto sentitu nintzen eta oraindik ez dakit nola deitu nire gorputzean, momentu horretan, iltzatu zen sentimenduari.

Ez nuen Nekane bezalako lagun onik galdu nahi. Hala bada, berarekin hitz egitea pentsatu nuen. Baina elkarrizketak ez zuen gehiegi iraun. Etxera heltzean gertatutako guztia kontatu nion amari, beti bezala. “Ez larritu” esan zidan. Nekane zure benetako laguna bada, ez da lotsatuko zurekin joateaz.

Ostiral arratsaldeetan ez genuen klaserik eta lehenago gelditzen ginen, kalean zehar ibiltzeko eta neska-mutil berriak ezagutzeko. Halako batean, Nekaneren mezu bat heldu zen nire aurre-historiako segapotora:

“Barkadazu Shaime. Zu janzkera horrekin ikustea arraroa iruditu zitzaidan, baina Interneten bilatu ondoren konturatu naiz burka eramatea zure erlijioaren tradizioa dela. Barkatu, mesedez”.

Lagunei irakurri nien eta guztiok batera Nekaneren etxera abiatu ginen bere bila. Bi minutu ez zituen behar izan gu geunden lekura etortzeko.

Azkenean, Nekane beste kultura baten ezaugarri bat gehiago ikasi zuen eta guztiok ikasi genuen ez dugula inoren gaineko aurreiritzirik izan behar. Promes bat egin dugu: Beti elkarrekin egotea eta leku guztietara lagun taldean joatea. Gainera, pentsatu dugu aratusteetan nire lagunak ni bezala janztea eta horrela Bilbo oso-tik ibiltzea eta hitz egitea.



Heriotzaren izenean

*J. Andrés Hoyos Guevara
Gabriel Aresti BHI.*

Lagunekin kopa batzuk edadetik nentorren. Etxerako bidean igotzen ari nintzen, sarreratik etxeraino zeuden eskailerak beste behin zenbatzen. Liskar izugarria izango nuela ziur nengoen, oso berandu nentorren eta mozkor samar, eta oraindik txarrago, putetxe usainarekin; baina barrutik banekien ez zela izango biharamuneko ajea bezain txarra.

Egia esateko oso nekatuta nengoen, egun oso luzea izan zen. Etxera ailegatzeari eta hortik ohera joatea besterik ez nuen nahi. Baina erronda miserable batekin mutuak eta guzti hitz egiten jarriko zirela pentsatu nuen. Hortaz, lagunekin kopa pare bat hartzea erabaki nuen, nire kreditu txarteleko zenbaki gorriak tragoen artean ahazteko asmoarekin.

Eta zerbitzariaren ipurmamiak ikusten ari nintzen ni, bat-batean, ez dakit nola edo nondik, heriotza burura etorri zitzaidan. Norbaitek jarritako droga baten efektua zela susmatu nuen, beraz ez nion kasu handirik egin, aurkakoa, nire burua eramaten utzi nuen.

Garai hartan tanatorio batean lan egiten nuen, baina arlo horretan eruditua izan arren, ez nik, ezta inork ere ezin esan zezakeen ziurtasun osoz heriotza zer zen, eta gutxiago nork sortu zuen.

Oso txikitatik, eta amaren umea izan nintzenetik hitz egiten ari naiz, gauza askori beldurra izan dizkiot, baina, gauza askoren artean, heriotzari batez ere. Heriotza betidanik izan da nirekin, edo hobeto esanda, gurekin, gizakiokin, gauza zaharrak eramane eta gauza berrientzat lekua utziz, Steve Jobsek esan zuen bezala. Hori izan da alde baikorra eta berezkoa; baina ez da horrela urtean milaka eta milaka pertsona gosez hiltzea, sendabiderik ez izateagatik gaixotasun arruntaz eta beste hainbat bidegabekeriagatik. Arretaz aztertzen badugu, hau ez da heriotza naturala. Egoera hauek pertsona multzo batengatik sortzen dira eta, zoritxarrez, pertsona horiek gu geu ere bagara. Geu gara besteen bizitzarekin jolasten dugunok.

Heriotzari ez diogu beldurrik izan behar, baizik eta gauzatzen dutenei, gezurretan aritzen direnei, arriskueta era eramanen gaituztenei, menperatu egiten duten jendeari edota desakordioak eta suntsidura gauzatzen dutenei izan behar diegu beldur.

Gaur eta betiko okertzen garela guztiok jakitea gustatuko litzaidake, heriotza bizitzan egiten dugun azkena baino gehiago dela, dudarik gabe, ausartzen naiz esaten, bizitza ondoren dagoen izugarritzko aldaketa baino ez dela. Bizitza eta gero gertatuko zaigun gauzarik hoberena izan daiteke baina oraindik, gaur egun, pentsatzeko eta adierazteko askatasun gehiago izan arren, egon daitekeen gauzarik txarrena dela uste izateak itsutu egiten gaitu. (Ezjakintasun madarikatua!).

Heriotza ez da zalantzan jartzen, baizik eta errespetatzen zaio erabakitzen dituen deliberamendu jakintsuengatik. Badakit pertsona askori oso zaila egingo zaiela hau onartzea eta ez didate kasurik egingo, baina bihotzarekin hitz egin dut, eta nire ustez, ez dago hura bezalako gauza egiazalerik, eta gutxiago mozkortuta bada ere.

Baina zuetako batzuk heriotza ia zer den edo nola doan jakiteko jakingurarekin geratu bazarete eta, ikertu arren lortzera ailegatzen ez bazarete, egunen baten jakingo duzue, zeren eta jaiotzen garenetik gure helburua beti izango da berdina, edonor garela ere, gure jomuga hiltzea da. Egun batean ulertuko dugu heriotza bizitza bezain inportantea dela, ez dugula osoki biziko lehenago nola hil behar garen ikasi barik. Baina egin dugun guztian, borrokatu dugun guztian, biziraun dugun guztian, anitz irabazi dugunean eta maitatu dugun beste horrenbeste horretan pentsatzen badugu, heriotza soilik hiltzea baino zerbait gehiago bihurtzen da, zerbait “ars moris” deitua. Heriotza zerbait gehiagorako zubia da eta nahi izan zenuena eginda hiltzen bazara, zoriontsu izaten hilko zara. Horregatik, oso garrantzitsua da egunero borrokatzea errenditu gabe. Esaiozu zeure buruari gezurra beharrezkoa bada, baina egindako ahalegin bakoitzetik mugarik gabeko ibilbideak egiten dituzu. Kementsua izan eta zure bizitza abentura bihurtu, zure azkenengo hantsean haxe esan ahal izateko: egin dut, zoriontsu izan naiz.

Hirurehun eta hiru eskailerak igo eta gero, giltzurrunak eta sorbalda utzita, etxera ailegatu nintzen, eta ia-ia grabitatearen legearen aurrean eroriz sartu nintzen, ahituta, kristo zaharraren piurarekin eta putetxeko usainarekin. Ez nintzen etxeko zorua zapaltzera heldu sarjentu andrea atera zenean iraganezin, lehen aldiz ikusi nuenean ikaratu bai eta maitemindu egin ninduen begitarte zurbil eta zimur horrekin. Banekien haserre zegoela, Aintzaren usain miraritsu hori besapeen ar-

tean baitzuen, gure ezkontzan oparitu ziguten Van Gogh-en eguzkiloreen koloreak desagerrarazi egin zuena. Beti gertatzen zitzaion, edo ni dakidanaren arabera, haserretzen zen bakoitzean.

Errieta egiten hasi zitzaidan, nire amak txikitan egiten zidan bezala:

—Non egon zara?, norekin egon zara?, zelako piura da hori?, badakizu zer ordu den?...

—Tabernan egon naiz, whisky kopa pare bat hartzen. Motzak. Eta orduari dagokionez, goizeko zazpiak dira, baina inoiz ez da berandu amodioa egiteko.

—Trago bakoitzeko dirua lortuko bazenu; Baina ez, orain gau osoa jasan behar izango zaitut...— esan zuen haserretuta—. Jaungoiko maitea, zergatik ezkondu nintzen berarekin!?

—Ez da ezer gertatzen, maitea —erantzun nuen—. Gaur gauza oso garrantzitsua ikasi dut, maindireak desegiten ditugun bitartean kontatuko dizudana.

—Eta zein ergelkeria ekarri didazu gaur, maitea?, paziente erraustu baten barrabilen tamaina, ala? —esan zuen ironikoki—.

—Ez —erantzun nuen—, gauza hobe: bizitzen ikasi dut.

Parkeko estatua

Aitor Merino Santa Cruz
Berrio-Otxoa HLBHIP.

Eguzkia ezkutatzen hasi zen neguko egun goibel, ilun eta lainotsu hartan. Klean ez zegoen ia inor, egun hotza baitzelako eta jendea euren etxeetan berogailuaren ondoan zegoelako. Nire begirada plaza txiki eta gutxi argituko estatua batera joan zen, aitona-amona baten estatuara, hain zuzen ere.

Baina beti ez zen horrela izan. Duela bi urte parkean zegoen estatua ez zen aitona-amonena. Bakarrik zegoen amona bakarti baten estatua. Estatua horrek parkean zehar paseatzen duten emakume zahar horietakoa baten antza zuen. Herriko hirugarren adineko pertsonen omenez eraikita zegoen, eskultore Frantziar batek duela urte batzuk sortua.

Estatuak iluntasuna eta bakardadea adierazten zuen, baina sentimendu horiek gehien adierazten zuena plaza horretako banku batean zegoen agure bakarti bat zen. Argi ikusten zen bere aurpegian islatzen zen tristura eta nola malkoak tanta-ka jausten zitzaizkion bere aurpegiko azal zimurretik zehar.

Agure hori egunero plaza horretara zihoan. Estatuaren aurrean parkeko banku batean eseri eta han bakarrik hitz egiten zuela esaten zuten herri horretakoek. Batzuek burua galdu eta zoratu egin zela esaten zuten; beste batzuek, ordea, mozkortuta zegoen agure bakartia zela. Baina benetako arrazoia bakardadea bera-ekin amaitzen ari zela zen.

Horregatik gau guztietan parkeko estatuarekin hitz egitera zihoan, bere sentimenduak parke hartako emakume zaharraren estatuari adierazteko eta berarekin hitz egiteko.

—Badakizu! —esan zion negarrez agureak—, bizitza osoa nire seme alabak maitasun handiz zaintzen egon naiz. Lan egin dut haiei onena emateko. Haiek ezkondu eta seme-alabak eduki eta gero, egunero joan behar izan dut ikastetxera biloben bila... —Sakonki arnastu eta gero jarraitu zuen—. Ondo pasatu dut, benetan, asko disfrutatu dut... —momentu bat isildu zen eta erantzun baten zain geratu zen—. Bai, bai, baina orain denek daukate bere bizitza eta ez naute behar... Eta gainera ez daukat lekurik euren bizitzan. Aurten ez didate deitu ezta nire urtebetetzean zoriontzeko ere —mukizapia atera, destolestu eta bekokitik pasatu zuen izerdia kentzeko—. Eskerrak zu zaudela, bestela ez dakit zer egingo nukeen, ez...



Eta horrela, gauak eta gauak igarotzen zituen parkeko estatuarekin hitz egiten bere bakardadeari aurre egiteko.

2009. urteko Gabon gauean, kalean inor ez zegoela, agurea estatuarengana hurbildu zen beti bezala. Estatuak erantzun ez arren, berak ez zuen etsitzen, eseri eta estatuari samurki esan zion

—Zaharrentzat etorkizunak ez duenez interesik, betiko errutina errepikatzen da. Zahartzaroa heltzean bizitza bukatu arte itxarotzea beste erremediorik ez daukagu, leku guztietan molestatzeko dugu eta... —negar egiten hasi zen—. Ahal izango banu, zurekin joango nintzateke... betirako.

Momentu hartan estatuaren burua mugitzen hasi zen motel, harrizko begiak zabaltzen ziren eta agureari begirada samur bat bota zion. Agurea harrituta geratu zen. Begiak etengabe igurtzi zituen eta hitzik gabe geratu zen.

—Benetan nahi duzu nirekin bizi? —galdetu zion parkeko estatuak.

Agureak, erantzunik ateratzen ez zitzaionalarik, eserlekutik altxatu eta baiezkoa eman zion, burua gorantz eta behe-rantz mugituz. Arnasa hartu behar izan zuen hainbat aldiz eta azkenean dardarka esan zion

—Nolatan hitz egin duzu? ezinezkoa da! zu soilik marmolezko eskultura zara...

Estatuak atzamar bat eraman zuen ahora eta isiltzeko adierazi zion. Gero beste eskuarekin hurbiltzeko eskatu zion. Agurea hurbildu zitzaion, estatua pertsona bihurtu zen eta inoiz



baino soinu gozoagoak entzuten ziren bitartean dantzatzen hasi ziren. Plazaren inguruan, etengabe bueltak ematen ari zirela, argi ikusten zen aitonaren zoriontasuna. Inoiz baino zoriontsuagoa zela esango nuke nik.

Begietara begiratuta, geldi geratu ziren. Estatuak agureari esan zion

–Badira urteak zure ezbeharrak, negarrak eta adierazpenak entzuten ditudala eta ailegatu da momentua...

Bat-batean, zerutik argi distiratsuak atera ziren. Gero gauaren isiltasuna bueltatu zen.

Hurrengo egunean herriko plazan ez zegoen agurea bankuan eserita. Oraingo honetan plaza erdian adineko bi gizon-emakume zeuden elkarri begira eta zoriontasuna nabaritzen zen haien aurpegietan.

UPTaren sorrera

*Nerea Godoy Fuentes
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Istorio honetan protagonistak ez dira super-heroiak, animaliak ere ez, umeak dira, baina ez ume arruntak, laguntzarako prest dauden umeak baizik (riiiiiiiiiiiiiing) TELEFONOA DA!!! NOR OTE? NORBAIT LAGUNTZA ESKE? IKUS DEZAGUN...

—UPTa (Umeen Patrulla Txikia), norekin ari naiz hizketan? —esan zuen UPTko nagusiak.


—Jon, zure ama naiz, zertan ari zara, berriro ere lagunekin espietara jolasten, ala? Esatera joan naiz jertsea ahaztu duzula etxean, maitea.

—Amaaaaa... —esan zuen Jonek haserre—. 1: ez naiz jolasten ari, 2: ez naiz espia, laguntzailea baizik, eta 3: ez dut jertserik nahi!! DAMBA! —telefonoa lurrera botaz, oihukatu zuen—. Nazkatuta naukaaaaaaaaaa!

Taldeko gainerakoek egiten ari zirena utzi (ez asko egia esan) eta Joni begiratu zioten.

—Zer duzu, Jon? —galdetu zion taldeko neska bakarrak.

—Nazkatuta nagoela! Hori gertatzen zait, inortxok ere ez gaitu serioski hartzen. Umemoko batzuk garela uste dute eta ez da horrela! UPTa benetako talde bilakatu nahi badugu, munduari erakutsi behar diogu nor garen!



—Ados gaude, baina... horrela da, umeak gara eta ezin diogu ume izateari utzi; umeak gara eta ez dago ezer egiterik —esan zuen Mainerrek burua makur zuelarik.

—Umeak! —esan zuen halako batean Patxik.

—Bai umeak, baina ez umeak bakarrik, Patxi. Umeak gara bai, baina ez edozein ume mota.

—Umeok motaka sailkatzen gaituzte orain, ala? —esan zuen Gorkak, beti ilar-gian baitzegoen.

—Ez... esan nahi dudana da, ume guztiak ez garela berdinak. Ume guztiak ez daude prest gure lana egiteko; hori dela eta guk balio handiagoa dugu, bereziak gara, hala da, ala ez?!

—Bai —esan zuten denek oso baxu.

—HALA DA ALA EZ!!! —aldarri egin zuen.

—BAI!!- taldeko gainerakoek.

—Agian, gure lehen misioak ez dira hil edo bizikoak izango. Agian, andre nagusi bati kalea zeharkatzen lagunduz hasiko gara, baina ez pentsa horrela bukatuko dugunik UPTa aurrera eramango dugu!!

—Eta denarekin ahal izango dugu!

—Gure ostean beste belaunaldi batzuk etorriko dira!!!

Eta hala izan zen. Hori ospatzeko festa bat antolatu zuten, baina horren aurretik Jonek deitxo bat egin zuen:

—Bai?

—Ama, barkamena eskatu nahi dizut lehengoagatik, sentitzen dut

—Maitea, banekien ez zinela benetan ari, zure ama naiz.

—Oena zara, ama, agur.

—Musu handi bat.

Beraz gogoratu irakurle maiteok, gauza handiak, gauza txikietatik hasiak direla. Hurrengora arte.

Aurkibidea

Alkatearen agurra	3
Sariak	4

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Urretxindorraren ahotsa	9
- Sua piztu	12
- Maria eta gaua	14
- Euritako baten abentura	16
- Ur-jauziko lamia	18

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

- Abdul	23
- Mo	25
- Zuhaitz magikoa	28
- Arrosa Horia	30
- Lehoi barazkijalea	32
- Txurrokindegia	34

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Harrapatuta	39
- Bi koloreen arteko grisa	43
- Maitasunaren ondorioa	45
- Lorenzo nire Loroa	49
- Déjà vu	52
- Luciaren egunerokoa	56

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Maitasun aitopenik ederrena	63
- Ni hemen eta aita urrun	66
- Zergatik jaio nintzen emakume?	69
- Aurreiritzirik ez!	71
- Heriotzaren izenean	73
- Parkeko estatua.....	76
- UPTaren sorrera	79



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO